



Zumaiako Udala

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA

2014ko martxoa

A. DOKUMENTUA MEMORIA - III. LIBURUKIA -



mwe

MIRUA²¹

**Patxi de Assas
Yagüe**

I LIBURUKIA

A.1 DOKUMENTUA

MEMORIA INFORMATIBO ETA ZURIGARRIA

A.2 DOKUMENTUA

DIAGNOSTIKOA

A.3 DOKUMENTUA

PLAN BEREZIAREN HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENAREN OINARRIAK

II. LIBURUKIA

A.4 DOKUMENTUA

EKINTZA PLANA

III. LIBURUKIA

A.5 DOKUMENTUA

PARTAIDETZA PLANA

2014ko martxoa

Zuzendaritza teknikoa:

Zumaiako Udala

Lantaldearen zuzendaritza eta koordinazioa:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Lantaldea:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza, SLL.

Pedro Areta Morondo - Biologoa

Tomas Aranburu Calafel – Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

Nerea Egia Larrinaga – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

MMEJ arkitektura - SLP

Mikel Azkona Uribe - Arkitektoa

Mikel Larratxe Berazadi - Arkitektoa

Javier Puldain Huarte – Arkitektoa

Mirua 21

Itziar Eizagirre Irureta - Abokatua

Patxi de Assas Yagüe- Abokatua

A.5 DOKUMENTUA

PARTAIDETZA PLANA

AURKIBIDEA

1. Kapitulua	HELBURUAK ETA IKUSPUNTUA.....	1
2. Kapitulua	ARAUDIA.....	3
3. Kapitulua	GARAPEN METODOLOGIKOA	4
3.1.	PARTAIDETZA PLANA GARATZEKO FORMULAZIO METODOLOGIKOA	5
3.2.	PARTAIDETZA ORGANOAK	8
3.3.	INFORMAZIO PUBLIKOA	9
3.4.	HERRI KONTSULTA.....	10
3.5.	PARTAIDETZA AKTIBOAREN DINAMIZAZIOA ETA ANTOLAKETA	10
4. Kapitulua	ERANSKINAK	13
4.1.	I. eranskina.- ERAGILE PARTE HARTZAILEAK	13
4.2.	II. eranskina. - AKTIBOKI PARTE HARTZEKO SAIOEN AKTAK.....	16
4.3.	III. eranskina.- PARTE HARTZEAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK	32
4.4.	IV. eranskina.- TXOSTEN SEKTORIALEI ETA ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNAK.....	36

1. Kapituluak HELBURUAK ETA IKUSPUNTUA

Ondoren aurkeztuko den dokumentuaren helburu nagusia, Zumaiaiko Udaleko organo eskuduna Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezian interesa duen eta horren garapenarekin loturiko erabakietan parte hartu nahi duen pertsona ororen eskubidea hobetu eta zabalduko duen tresna batez hornitzea da. Horretarako legeak finkatzen dituen informazio, kontsulta eta herritarrek parte hartzeko prozedurak zabalduko ditu.

Bigarrenik, Partaidetza Planak UIBMPB garatzeko abian jarri diren herritarrek parte hartzeko neurriak jakinarazi eta jendarteratu nahi dizkio.

Halaber, Partaidetza Planaren helburua bere jarduera irizpideak eta oinarriak zeintzuk diren argitzea da, baita erabiliko den metodologia eta aurrera eraman nahi diren jarduera zehatzak argitzea ere.

Bestalde, dokumentu honek ondorengo legeetan jasotzen diren hainbat jarduketa arautu nahi ditu: uztailaren 18ko 27/2006 Legea, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen, apirilaren 28ko 9/2006 Legea, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa, eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta Programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio prozedura arautzen duena.

Orobat, interesaturiko gizarte alderdi guztien sentsibilizazioa eta ardura partekatua lortzea du xede. Azkenik, gizartean gai horren inguruan dauden gogoetabide guztiak azalera atera nahi ditu, eragile ezberdinen arteko elkarriketarako guneak sustatuz eta trabarik gabeko informazio bide egonkorak sortzeko asmoz.

Aurkeztuko den dokumentua modu ireki eta malguan planteatu da, UIBMPBren egite prozesuan azalera daitezkeen eskari eta behar berrietara egokitu ahal izateko, haren emaitzak izapidetze fase guztiak bilduko dituen ikuspuntu orokor batetik gauzatu eta optimizatzeko.

Gizartearen eskaera berriek gobernu jardueraren eta administrazio antolaketaren eredu berriak dakartzate. Oinarri zabaleko kontsentsuak behar dira egitasmoak ahalik eta sustengatuen izan daitezen, jarraitu beharreko bideak eta aurrera jotzeko erak adosteko. Hala arloko politikak nola egitasmoek eraginkortasuna bermatu behar dute beren emaitzetan, baita gardentasuna eta kontuen bihurtzea ere, eta, horretarako, beharrezkoa da elkarriketa eta interesa duten eragile anitzen ikuspuntura irekita egotea, eta lan sare egonkor eta fidagarriak ezartzea Urolako Itsasadarra babesteko eta antolatzeko. Herritarren parte hartzea gauzak egiteko beste era batzuk ezartzen lagunduko duen zeharkako elementutzat jo beharra dago.

Horrela, azpimarratzekoa da herritarren partaidetza ez dela bat-batean sortzen, baizik eta apostu politiko aktibo eta etengabea behar duela. Beraz, parte hartze eraginkorra sustatzeko, beharrezkoa da informazioaren eskuragarritasuna era garden eta egokian erraztea, ondorengo parte hartzea optimizatu asmoz, aurrez parte hartzearen sustatzaileen eta parte hartzaileen arteko hainbat konpromiso ezarri, bi aldeek erantzukizuna eta elkar ulertzeko borondatea izan dezaten.

Oraingo partaidetza prozesuaren oinarrizko helburua diren ikuskera, ikuspuntu eta planteamendu ezberdinak plan berezira eranstea da, hainbat gizarte segmentutako eragile interesdunen bertaratze sistematizatuaren bitartez. Horretarako, hiru esku-hartze maila ezarri dira, informazioari dagokiona, kontsultakoa eta partaidetza aktiboa, era horretan aski ondo adierazi ahal izateko nahikoa gune egon daitezten.

Parte hartze plana emaitza ziurrak eta ukigarriak lortzeko tresna gisa sortu da eta ez berezko helburu moduan. Hori dela eta, partaidetza prozesua izapidetzearen hasierako faseetan antolatu da –aurrerapen fasea eta hasierako onarpen fasea– horiek esku hartzeko aukera gehiago ematen baitute, izan ere, behin-behineko onarpen fasea edota behin betikoa ez baitira zeregin horretarako hain egokiak. Bigarrenik, plan berezian jorratzen diren zenbait alderdirekin harremana izan duten talde, erakunde, elkarte, banako, eta abarrekiko harremanak eta komunikazio bideak indartu nahi izan dira, bai eta harreman hain zuzena ez zen horiekin lotura berriak ezarri (ekologisten elkarteak, sindikatuak, landa garapenerako agentziak, eta abar), eremuaren ingurumen balioak ahalik eta erarik onenean babesteko xedeaz.

Eragile parte hartzaileei dagokionez, ordezkagaitasun irizpidea jarraitu da, hots, UIBMPBek eragiten dituen interes nagusiak aintzat hartu dira, nahiz eta beste eragile batzuei ere aukera zabaldu nahi izan zaien, haien ibilbide eta izaerarengatik garrantzitsuak izan daitezkeelakoan, emaitzei begira.

2. Kapitula ARAUDIA

Gobernu eta administrazio maila guztietan, Europakoetatik tokikoetara, partaidetza arautzeko elementuak antzeman daitezke, gero eta zailagoa baita horiek herri-kudeaketatik kanpo mantentzea.

Europako esparruan dokumentu nagusietako batek, Europako Itunak, subsidiarioritasun printzipio gisa ezaguna denaren aplikazioa aipatzen du dagoeneko, hau da, gaiak herritarrengandik gertuen dauden mailetatik jorratzea. UIBMPB kokatzen den esparrua eratzen duten ingurumen eta iraunkortasun arloko gaiei dagokienean, **Aarhuseko Hitzarmena** da 1992ko Lurraren Goi Bileran aldarrikaturiko hamargarren irizpidea modu zuzenean gauzatzen duena, aipatu ildotik, informazio eta partaidetza beharrari irtenbidea emanez.


Estatu mailan, uztailaren 18ko **27/2006 Legeak** ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko eskubideak, herritarren partaidetza eta justiziara heltzeko arautzen ditu; apirilaren 28ko **9/2006 Legeak** ere, zenbait planek eta programek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruz arautzen du.

Aldiz, autonomi erkidegoaren esparruan, herritarren partaidetzaren gaia urriaren 16ko **211/2012 Dekretuaren** bidez aitortzen da, zeinak planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu.

Hala eta guztiz ere, herri-partaidetzarako esparru arautzaile bat izateak ez du baliorik zentzu eta mami osoz hornitu eta aplikatzeko borondate sendorik ez bada. Horregatik parte hartzea modu mailakatu eta malguan landu behar da, errealitate bakoitzari egokituz, egoeraren zein eragileen neurrira, beti ere, emaitza zehatzak lortzeko tresna moduan ulertuta eta ez berezko helburu edo bete beharreko izapidetze arrunt gisa.

3. Kapituluak GARAPEN METODOLOGIKOA

Oraingo Herri-partaidetza Planerako proposatzen den gizarte eta administrazio inplikazioa ondorengo hiru maila berezi eta osagarrietan antolatuko da: informazio horniketa aktiboa, kontsulta eta partaidetza aktiboa.



Informazio horniketa

Herri Kontsulta

Parte Hartze Aktiboa

Web orria
Paperezko dokumentazioa udaletxean
Informazio foroa
Prentsa
Bestelakoak

Herri kontsulta honakoei buruz:

- Lan egitaraua: egutegia, kontsulta formulak
- Herritarren parte hartze egitasmoa
- Funtsezko gaien eskema
- Beste eragile posible batzuk
- Plan Bereziaren proiektua

Planifikazio osoan zehar eta zehazki:

- Funtsezko gaien eskemaren eraketa.
- Neurri programaren planteamendua eta garapena, ingurumen helburuen ezarpena.
- Plan Bereziaren eraketa.
- Plan Bereziaren eta neurrien programaren ezarpena, jarraipena, ebaluazioa.

3.1. PARTAIDETZA PLANA GARATZEKO FORMULAZIO METODOLOGIKOA

3.1.1. AURREKARIAK

a) Helburuak

Hasieratik Zumaiaiko Udaleko ingurumen zinegotzigoak argi izan du beharrezkoa dela UIBMPBri ondo egokitutako partaidetza eredu planifikatu eta sistematizatu bat garatzea, udalerrian aritzen diren eragile ezberdinei leku egin eta horiekin plana eratzen duten elementuak kontrastatu ahal izateko.

Zumaiaiko Udalak UIBMPBrako proposatzen duen partaidetza ereduak hainbat motako eragileak biltzen ditu, hala udalerrikoak bertakoak, elkarteak eta hiritarrak, nola beste herri-erakundetakoak, planaren edukiak aberastuko dituztenak.

Horretarako, beharrezkotzat jo du aldez aurretiko prestakuntza lanak garatzea –irizpideak definitzea eta eragileak hautematea, funtsean–, hasieratik antolatutako eta sistematizaturiko herri-partaidetzaren kontzeptutik abiatu ahal izateko, UIBMPBren esparruan, herritarren parte hartzetik beretik eraginkortasun handiagoa eta benetako emaitzak lortze aldera.

Diseinu faserako definitu diren helburuak ondorengoak dira:

- Hatsarreak, balioak, gidalerroak eta parte hartzeko irizpideak zehaztu. Prozesuan parte hartzeko interesa duten eragileak hauteman eta horri lotu.
- Alderdi nagusiak zehaztu, UIBMPBren testuinguruan parte hartzea sustatuko duten sistematika eta metodologia ezartze aldera.
- Aipatu helburuak gauzatzen lagunduko duten ekintza lerro nagusiak aztertu eta zehaztu.

Oinarritzkoa da jakitea zertarako eta zergatik planteatzen den herritarren parte hartzea UIBMPBren esparruan, bai eta partaidetza prozesua nola garatuko den eta, hori antolatzeke, zein era eraginkorrean aurrera egin dezan, zer jarduketa burutuko diren ezagutzea ere. Funtsezkoa da, halaber, parte hartu nahi duten eragileak identifikatzea eta hasierako urratsak horiekin kontrastatzea haien ikuspuntuak integratzeko.

b) Hatsarreak

Partaidetza ereduak garatzeko marko kontzeptualak, zeinaren barruan lan egin duen Zumaiaiko Udalak, honako hatsarre hauek jasotzen ditu:

 Ingurumen Zinegotzigoak UIBMPBri egokitutako herritarren partaidetza prozesua sustatuko du, udalaren **barneko** parte hartzea zein udaletik **kanpoko** bultzatu asmoz, aukera kanpoko beste administrazio, elkarte, erakunde eta herritar batzuei zabalduz.

 Ingurumen Zinegotzigoak UIBMPBren esparru barruko herritarrek parte hartzea bultzatuko du baina horren aplikazio eraginkorraren ardura udal gobernu osoaren gain egongo da.

- 📖 Parte hartze prozesua emaitza zehatzak lortzeko tresna gisa ulertu behar da, emaitzok hainbat eragileren parte hartzetik etorriko dira eta erabakiak hobeto hartzen lagundu eta UIBMPB bera osatzen lagunduko dute, era eraginkorrean. Ez da inolaz ere berezko helburu gisa planteatzen, nahiz eta “prozesu”-aren ideia nabarmenki integratzen duen etengabeko ikasketa eta denon arteko ideien sorkuntzaren ildotik.
- 📖 UIBMPBren partaidetza planteamenduaren abiapuntua haren eduki eta jarduera guztiak horretarako eratu diren parte hartze organo ezberdinekin kontrastatzeko nahia da (mahai teknikoa, herritarren parte hartze foroak eta, elkarre baten bazkide ez izanik, egitasmoan interesa duten herritarren foroak).
- 📖 Herritarren parte hartzea definitu diren hatsarre, balio, irizpide eta jardueren bitartez gauzatzen da, haiek gidatu beharko dute UIBMPB osoa eta haren Herri-partaidetza Plana. Horrek aipatu diren baliabide eta borondate zehatzak eskatuko ditu.
- 📖 Azaldutako partaidetza ereduak *ad hoc* aukeraturiko dinamika eta metodologia ezartzen du, zeinetarako berezko partaidetza prozesu berezia eratu beharko baita, gerora jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetu beharko dituen.
- 📖 Egitasmo horren esparruan **partaidetza** honako era honetan ulertzen da: *“Herritarren eskubidea herri-politiken definizioan aktiboki parte hartzeko, legezotasuna eta erantzukizuna gobernuaren gain daudela, ordezkaritza sistemak horrela ezartzen baitu. Udal gobernuak egokitzen jotzen dituen erabakiak hartuko ditu legezotasunez eta gardentasunez jokatzearen eta kontu ematearen baldintzapean, sistemaren eraginkortasuna bilatuz”*.
- 📖 Prozesua Urolaren Itsasadarra zein bere ingurumena hobetzeko, denon arteko ideien sorkuntza- eta ikaste-prozesu irekitzat jotzen da.

c) Partaidetza sustatzeko irizpideak

Ezaugarrien azterketa egin ondoren eta Plan berezia kontuan harturik udalak ondoko premisa hauetatik abiatzea erabaki du:

- 📖 Beharrezkoa da herritarren parte hartze eskubidea zabaltzeko borondate politikoa jendaurrean adieraztea, horretara bideratuko duen lidergo politiko sendoa ezarri.
- 📖 Udalak, ordezkaritza bidezko demokraziak ematen dion autoritateak legitimatuta, funtzionamenduaren mugak ezarriko ditu hasieratik eta haren gain egongo da partaidetza prozesu ezberdinetatik lorturiko emaitzak gauzatzearen erantzukizuna.
- 📖 Plan Berezia eratze prozesuaren fase bakoitzean eragileek partaidetzarako hainbat hatsarre eta arau adostuko dituzte, prozesuaren ahalbideak eta helmena argitze aldera eta itxaropen faltsurik sortu edo bete gabeko hitzik egon ez dadin.
- 📖 Ordeztagaitasun estrukturalak ukitutako interes ezberdinak edo herri-partaidetza prozesu batean aintzat hartu beharreko interesak islatzen ditu, hartara, hori da sustatuko dena hasierako faseetan eta ez ordeztagaitasun kuantitatiboa.

- 📖 Parte hartuko duten eragileak aukeratu, antolatu eta Plan Bereziaren eraketa prozesuarekin lotuko dira.
- 📖 Eragileekiko harreman zuzena sustatuko da, elkar ezagutza erraztuz. Udalak komunikazio bide irekiak ezarriko ditu eragile guztiekin, Plan Bereziaren egite prozesuan inplikatzeko helburuz.
- 📖 Zumaiaiko Udalak partaidetza gisa duenaren ulermen garbia sustatuko du.
- 📖 Parte hartzeko saioen aurretik, kalitatez eta era egokian informatuko da jorratuko diren edukiei buruz.
- 📖 Bai saioetan bai partaidetza prozesu osoan zehar, ingurune egokiak eta atseginak bilatuko dira berdintasun irizpidea aintzat hartuta.
- 📖 Ahalik eta emaitzarik onenak lortze aldera partaidetzak sistematizatua beharko du, osotasuneko ikuspegi batek oinarrituta. Hartara, metodikoki antolatua, komunikatua eta koordinatua izan beharko du udaleko gainontzeko kideekin batera: helburuak, parte hartzea txertatzen duten egitasmo zehatzak eta erakundea nola lotzen duten, eragileak, parte hartze agenda edo kronograma, mekanismoak, bideak, teknikak, dinamikak, organo egonkor eta behin-behinekoak, prozesuaren zein fasetan aplikatuko diren, beharrezko baliabideak, eta abar.
- 📖 Plan Bereziaren egite prozesuaren barruan partaidetza garatuko den testuingurua eta aurrekariak aztertuko dira, aurretik zeuden partaidetzarako guneak errespetatuz, elkarlana bilatuz eta bikoiztasunak edo mesfidantzak saihestuz.
- 📖 Emaitzak eta erabakiak bideratzeko baliabide egokiak izatea eta ematea bilatuko da, era horretan, denon artean egindako lana ezerezean gelditzen denaren sentsaziorik ez izateko.
- 📖 Emaitzen aplikazio eraginkorra lortzeko behar diren baliabideak bermatzea bilatuko da.
- 📖 Parte hartze prozesua errazteko beharrezkoak diren ahalmen, gaitasun, jarrera eta trebetasunak bermatu nahirik, lana profesional espezialistek egingo dute.
- 📖 Prozesuak behar duen denbora epeak egokituko dira eta partaidetzaren mugarren berri emango duen agenda bat izango da.
- 📖 Prozesuak parte hartzaileekin ikuspegi adostuak lortzera bideratuko dira, informazio eta kontsulta jarduera hutsez haratago. Iritzi eta ikuspegi aniztasuna, bai eta eragile mota, jatorri, genero eta adin aniztasuna udalak erantsi nahi izan dituen elementuak dira, parte hartze prozesua aberasten dutela ulertzen baitu.
- 📖 Emaitza zehatz, ikusgarri eta ukigarriak lortu nahi dira. Oso erabilgarria suertatzen da partaidetzaren xedea den hori eta partaidetza beraren emaitzak lotzea, bai eta emaitzekin hartutako konpromiso maila zein horien definizioa aplikatze praktikoaren gain duen eragina argitzea.
- 📖 Jarraipen eta kontrolerako baliabideak sortuko dira prozesua erregistratu eta ebaluatzeko, gerora hobetzeko asmoz.

📖 Formakuntza eta ikasketa eszenatokiak garatuko dira herri-partaidetzaren irizpideetan aurrera egiten jarraitzeko. Hasierako faseetan garrantzitsua izan da bi alderdi osagarri aintzat hartzea. Lehenengoa partaidetzaren bitartez garatu nahi izan den lan zehatzarekin loturik dago. Bigarrenak parte hartzearen alderdi hezitzaileari erreparatzen dio, elkarrizketa eta elkarlana aurrera joan ahala demokrazian sakontzeko eta komunitatearen eraikuntzarako tresna baita. Prozesu kontzeptua eranstea herri-kultura, kultura politikoa eta harreman kultura sustatzen eta aberasten da.

d) Ikuspuntua, asmoak, baliabideak eta eta konpromisoen azterketa

Zumaiako Udalaren iritziz ezinbestekoa da parte hartzera deituak izan diren horiek agertu duten interesa kontu handiz sustatu eta mantentzea. Halaber, garrantzi handikotzat jotzen da parte hartzearen kostu eta onuren inguruko aurreikuspena egitea, parte hartzaileen aukeraketa arduratsuKI egitea eta prozesuan zehar egin beharreko lanen irismena zein den eta horietatik zer espero daitekeen ongi azaltzea.

3.2. PARTAIDETZA ORGANOAK

Parte hartze organoak ondoko eragileek osatuko dituzte:

Mahai Teknikoa	Herritarrek parte hartzeko Foroak	Lantalde Teknikoa
- Eskumena duten administrazioak - Elkarteak - Adituak	- Inongo elkartetan ez dauden herritarrek - Elkarteak	- Zumaiako Udaleko arduradun politikoak - Arduradun teknikoak - Talde aholkularia

UIBMPBren aurrerapen fasean eragile parte hartzaile guztiei galdetu zaie garrantzi handienekotzat jotzen dituzten alderdien inguruan, horiek analizatu eta plan berezian sartze aldera, eta, logikoa den moduan, erreferentzia esparrua Urolaren itsasadarra eta berau eratzen duten eremu guztiak dira. Itsasadarraren egungo egoera aztertu da, antzemandako erabilerak, inguruarekiko bateragarritasunak eta administrazio ezberdinen eskumenak, bai eta dauden mehatxu eta aukerak ere, inguruarekin bat datorren diagnostiko errealista eratze aldera.

Aurrerapen fasean zehar parte hartzeko hainbat bilera egin izan dira. Horrela, ‘Mahai Teknikoa’, hainbat elkartek eta planaren xede diren gaitan eskumena duten zenbait administrazioek osatutakoa, bi alditan bildu da. Herritarrek Parte Hartzeko foroei dagokienez, hiru saio egin dira, Urolaren itsasadarra eratzen duten eremu ezberdinen arabera banatu direnak, horietako bakoitzaren alderdi bereizgarriak zehatzago lantzeko; era honetan, Santxoko eremua ardatz izaan duen saio bat antolatu da, beste bat Artadi-Beduako eremuan oinarrituta eta azken bat Oikiakoaren ingurukoan. Aipatu hiru zonek ongi bereizitako ezaugarriak dituzte eta parte hartzeko esparru bana eskainiz, azterketa sakonagoa egin ahal izatea bilatu da, bilera bakar batean ezinezkoa izango baitzen.

3.3. INFORMAZIO PUBLIKOA

Garrantzitsua da azpimarratzea kontsulta eta parte hartze prozesu egokia bermatzeko beharrezkoa dela behar bezalako kalitatea duen informazio hornikuntza ezartzea. Premisa horri jarraituz, UIBMPBren partaidetza prozesuan Plan Bereziaren izapidetze fase bakoitzari buruzko informazioa era gardenean eta aktiboan emateko lan egiten ari da. Informazio hornikuntza eragile nagusiei zuzentzen zaie: herri-agintariak, ukitutako administrazioak, interesa duten pertsonak eta elkarteetatik kanpoko hiritarrak.

Ondoko atal honetan Plan bereziaren egite eta izapidetze prozesuan argitaratzen den informazioa zerrendatuko da eta informazio hori irisgarria izan dadin erabiltzen diren tresnak azalduko dira. Hona hemen informaziorako sarbide guneak:

3.3.1. OINARRIZKO INFORMAZIOA

Zumaia Udaleko Ingurumen Zinegotzigoak UIBMPBren dokumentua azaltzera xedaturiko hainbat informaziorako baliabide garatu ditu, ingurumenaren babeserako tresna izateaz gain, herritarrei zabaltzeko eta parte hartze aktiboaren mende jar daitezkeenak.

Izapidetze prozesuaren fase ezberdinetan zehar argitaratuko diren dokumentuak <http://zumaia.net> web gunean aurkitu ahal izango dira. Horrela, prozesuan zehar planaren dokumentuari ekarpenik edo iradokizunik egin nahi dioten pertsonak bide honetatik egin ahal izango dute, ondoren teknikariek aztertu ditzaten.

Izapidetzearen fase ezberdinetan eskuragarri izan diren dokumentuak ondoko hauek dira:

AURRERAPEN FASEA

- Plan Bereziaren hasierako dokumentua
- Gai garrantzitsuen eskema eremuko (Santixo, Artadi-Bedua, Oikia)
- Informaziorako gaikako mapak
- Parte hartzera deituriko eragileen proposamena

HASIERAKO ONARPENeko FASEA

- Plan Bereziaren hasierako onarpeneko dokumentua
 - Memoria informatibo eta zurigarria
 - Diagnostikoa
 - Planaren helburuak eta antolamendu proposamenaren oinarriak
 - Ekintza Plana
 - Partaidetza Plana
 - Gauzatzearen antolaketa- eta Kudeaketa-Jarraibideak
 - Hirigintza arauak
 - Dokumentu ekonomikoa
 - Informazio planoak
 - Antolaketa planoak

Plan Bereziaren dokumentua aurrera doan heinean dokumentazioa ere eguneratzen joango da.

3.3.2. INFORMAZIORAKO SARBIDEA

Legeak herritarrek duten ingurumen gaien inguruko informaziorako sarbidea aitortzen du (uztailaren 18ko 27/2006 Legea, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarren partaidetza eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen). Horri jarraituz, izapidetze prozesuaren fase ezberdinetan zehar, eskuragarri izango da oinarritzko informazio zerrenda bat, bai paperean bai euskarri digitalean, interesa duen orok era errazean kontsultatu ahal izateko, hala udalaren web gunean [<http://zumaia.net>], zein udaletxean. Informazio eskaerak udalaren posta elektronikoaren bidez, idatziz, faxez edo telefonoz bideratuko eta dira Ingurumen Zinegotziagoari helaraziko zaizkio. Herritarren arreta ordutegia goizeko 9:00etatik- 14:00etara izango da.

Zumaiaiko Udala

Foruen Enparantza, 1 - 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 943 865025 - Faxe: 943 862456.

Horrekin batera, udala lurralde eta udalerri mailako hedabide nagusien bitartez helaraziko du informazio osagarria, Urolaren itsasadarren babesari eta horren ingurumen balioei buruzko eztabaida sustatu asmoz.

3.4. HERRI KONTSULTA

Herri kontsulta legez bete beharreko prozedura izanik, UIBMPBren izapidetzeak premisa horren mende egon beharko du. Horrela, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedurak arautzen dituen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak xedatutakoari jarraituz, oraingo plana araudi horren zehaztapenen muga barruan garatuko da.

Edonola ere, udalaren nahia alderdi hori legeak dionetik harago zabaltzea denez gero, legeak kasu bakoitzerako jartzen dituen epeak jarraituko badira ere, kontsulta zuzenak egiteko sistema bat ezarri da, erdi egituraturiko elkarrizketa bidezkoa, Plan Bereziaren edukien inguruan ahalik eta informazio gehiena jasotzeko xedeaz eta UIBMPB hobetuko duen partaidetza prozesua doitzeko asmoz.

UIBMPBren burutzeari begira, kontsulta zuzenen beste itzuli bat egitea aurreikusi da, lortutako emaitzekiko asetze maila islatzeaz gain, berrikuste zein jarraipen prozesuak hobetzea ahalbidetuko dituen.

3.5. PARTAIDETZA AKTIBOAREN DINAMIZAZIOA ETA ANTOLAKETA

3.5.1. PARTAIDETZA AKTIBOA

Partaidetza aktiboa, bereziak izan arren elkarren artean loturik dauden hiru espaziotan landuko da.

Alde batetik, Mahai Teknikoa eratu da, Urolako Itsasadarrean eskumenak dituzten hainbat administrazioek eta, arloko ezagupena izanik, Plan Bereziaren edukiak hobetzen lagun dezaketen bestelako zenbait elkartek osatzen dutena.

Bestalde, Herritarrek Parte Hartzeko hiru Foro egin dira Planak antolatzen duen eremua banatu den hiru eskualde barrutiren inguruan. Banaketaren xedea barruti horien azterketarako denbora luzeagoa izatea eta ondorio hobeak atera ahal izatea da.

Halaber, elkarrekin bildurik ez dagoen herritarren parte hartzea ahalbidetzeko helburuz, hori izaten baita lortzen zailena, informazioa eskuratzeko eta iradokizunak jasotzeko guneak sortu dira web baliabideen bitartez.

AURRERAPEN FASEA	
ORGANOAK	HELBURUAK
1. MAHAI TEKNIKOAK	- UIBMPB aurkeztu. - Funtsezko gaiak proposatu. - Lehentasunezko guneetarako jarduera proposamenak jaso. - Beste eragile posible batzuk proposatu. - Mahai teknikoaren jarraipenerako protokoloa erabaki.
• SANTIXOKO HERRITARREN FOROA • ARTADIA-BEDUAKO HERRITARREN FOROA • OIKIAKO HERRITARREN FOROA	- UIBMPB aurkeztu. - Funtsezko gaiak proposatu. - Lehentasunezko guneetarako jarduera proposamenak jaso. - Beste eragile posibleen batzuk proposatu. - Eremu bakoitzean egiten diren erabilerak eta jarduerak aztertu eta ingurumen balioen babes eta erabilera horiek bateragarriak egingo dituen arautzeko proposamenak jaso. - Ingurumen eta paisaia balioak babesteko eta hobetzeko ekintzak posibleetarako proposamenak jaso.
2. MAHAI TEKNIKOAK	- Saioa aurkeztu. - Bertaratutakoak aurkeztu. - Talde dinamika. - Zonakatze eta esku hartze posibleen proposamenen inguruko eztabaida eta ekarpenak egin. - Esku hartzeak lehenetsi.

3.5.2. FUNTSEZKO GAIEN ZERRENDA ETA ERAGILE BERRIEN PROPOSAMENA

Aurrerapen fasean aipatu parte hartze organoetan biltzen diren eragile ezberdinei inkesta bat egin zaie Urolako Itsasadarraren ingurumen babesarekin loturiko funtsezko gaiak antzemateko asmoz. Hartara, gai garrantzitsuen eskema eratu ahal izan da, udalak eta talde teknikoak aintzat hartu dutena hasierako onarpen dokumentua idazterako orduan. Bestalde, parte hartzaile berriak sartzeko aukeraz ere galdetu zaie parte hartzaileei. Horrela, Portuen Lurralde Zerbitzuari, Zuga Zumaiako Gazteei eta Beduola Ontzi Elkarteari zabalduko zaie deialdia hurrengo foroetarako.

Aipatzekoa da, parte hartzaileen hautaketa partaidetza estrukturalaren ikuspuntutik egin dela, interesa duten eragile nagusiak antolatutako parte hartzeko espazioetan egon zitezen bilatuz. Hala ere, elkartetan bildurik ez dauden herritarrak ere herritarren foroetara erakarri nahi izan dira, partaidetza irekiagoa eta kuantitatiboagoa lortze aldera, zabalagoak diren hedabideen eta bide digitalen bitartez. Deituriko eragileak eta parte hartzaileak **1. eranskinean** jaso dira.

3.5.3. KOMUNIKAZIORAKO BIDEAK

UIBMPBren eratze prozesu osorako hainbat komunikazio baliabide iraunkor abiatu da, informazioren trukea eta hornikuntza aktiboa ahalbidetuko dutenak partaidetza prozesua zein ekarpenen kalitatea hobetzeari begira eta Plan Bereziaren dokumentua ere hobetzearren. Abian jarritako komunikazio bideak ondorengoak dira:

Kontsultarako bideak:

 Zuzeneko telefono bidezko arreta.

 Pertzepzioaren analisia.

Hausnarketarako bideak:

 Mahai Teknikoak

 Herritarrek parte hartzeko foroak

 [<http://zumaia.net>]

 Bestelako bilerak eta eragile jakinei egindako kontsultak.

Informaziorako baliabideak:

 Zumaiaiko Udaleko Ingurumen Zinegotzigoa

 [<http://zumaia.net>]

 Tokiko hedabideak

 Interesaturiko eragileekin zuzeneko hartu emanak

4. Kapituluak ERANSKINAK

4.1. I. eranskina - ERAGILE PARTE HARTZAILEAK

1. MAHAI TEKNIKOA - 2012ko uztailaren 26an

BERTARATUTAKOEN ZERRENDA

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
Aitor	Leiza	Zumaiako Udala
Ainara	García	Algorri
Jon	Etxezarreta	Aranzadi
José Ignacio	Arrieta	URA
Belén	Campomar	Kosta Lurralde Zerbitzua
Cristina	Maillo	Kosta Lurralde Zerbitzua
Aitor	Ibarguengoitia	Zumaiako Udala
Octavio	Oruezabal	GFAko Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako Departamendua
Iñigo	Mendiola	GFAko Mendi eta Natura Ingurumen Zuzendaritza
Nerea	Egia	EKOLUR
Tomas	Aranburu	EKOLUR
Pedro	Areta	EKOLUR
Itziar	Eizagirre	MIRUA21

2. MAHAI TEKNIKOA - 2012ko azaroaren 29an

BERTARATUTAKOEN ZERRENDA

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
Nerea	Egia	EKOLUR
Tomas	Aranburu	EKOLUR
Pedro	Areta	EKOLUR
Itziar	Eizagirre	MIRUA21
José Ignacio	Arrieta	URA
Aitor	Leiza	Zumaiako Udala
Aitor	Ibarguengoitia	Zumaiako Udala
Gorka	Arregi	Zumaiako Udala
Asier	Hilario	Geoparkea
Yurre	Peñagarikano	Urkome
Leire	Barriuso	Geoparkea
Ainara	Garcia	Algorri
Leire	Oreja	Aranzadi
Jon	Etxezarreta	Aranzadi
Octavio	Oruezabal	GFAko Mendi eta Natura Ingurumen Zuzendaritza
Inaxio	Manterola	Zumaiako Natur Taldea
Iñigo	Mendiola	GFA
Jon	Zulaika	GFA
Rafa	Sainz	Itsas Enara

SANTIXOKO HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA - 2012ko urriaren 9an
BERTARATUTAKOEN ZERRENDA

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
Aitor	Leiza	Zumaiako Udala
Juan Ramón	Larrañaga	Arbustain
Jose Ramón	Elosua	Arbustain
Xabier	Arranz	Arbustain
Iñaki	Etxabe	Baserritarra
Alberto	Aguas	Herritarra
Inaxio	Manterola	Z.N.T
Ricardo	Torre	Beduola
Oihana	Artetxe	ZIIZ
Ainara	Garcia	Algorri
Ainhoa	Gaston	Herritarra
Nerea	Egia	EKOLUR
Tomás	Aranburu	EKOLUR
Itziar	Eizagirre	MIRUA21

ARTADIA-BEDUAKO HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA - 2012ko urriaren 10ean
BERTARATUTAKOEN ZERRENDA

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
Aitor	Leiza	Zumaiako Udala
Rafa	Sainz Elizondo	Itsas Enara
Jose Ramón	Armendariz	
Xabier	Arranz	Arbustain
Jose Ramón	Elosua	Arbustain
Jon	Arratibel	Begi-bistan
Iñaki	Etxabe	
Nerea	Egia	EKOLUR
Tomás	Aranburu	EKOLUR
Itziar	Eizagirre	MIRUA21

OIKIAKO HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA - 2012ko urriaren 16an
BERTARATUTAKOEN ZERRENDA

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
Aitor	Leiza	Zumaiako Udala
Amaia	Oliden	Oikia auzoa, 12 (Soburuzbekoa)
Kontxi	Arriaga	Artadi auzoa, 22 (Torrontegi)
José Julian	Alberdi	Oikia auzoa, 1 (Konde)
Pili	Astigarraga	Oikia auzoa, 14
Lourdes	Gurrutxaga	Oikia auzoa, 4 (Erreterria)
Mª Jesús	Garate	Oikia auzoa, 31 (Goiburu)
Mª Karmen	Arrona	Oikia auzoa, 15 (Beko Errementikoa)
Mª Angeles	Ayerza	Oikia auzoa, 17 (Juliñene)
M.	Etxabe	Oikia auzoa, 8 (Lore)

IZENA	ABIZENA	ERAKUNDEA
M ^a Jesus	Zubimendi	Oikia auzoa, 20 (Lizarraga)
Bertol	Etxabe	Oikia auzoa, 19 (Pikaondobekoa)
Mikel	Galarraga	Artadi auzoa, 21 (Torre)
Olatz	Etxabe	Oikia auzoa, 7 (Lore)
Karmele	Uranga	Oikia auzoa, 10 (Lasalde Berri)
Javier	Zulaika	Oikia auzoa, 18 (Pikaondogoikoa)
Nerea	Egia	EKOLUR
Tomás	Aranburu	EKOLUR
Itziar	Eizagirre	MIRUA21

4.2. II. eranskina – AKTIBOKI PARTE HARTZEKO SAIOEN AKTAK

MAHAI TEKNIKOA (2012/07/26)

Mahai Teknikoaren hasierako bileraren akta

Bilera lekua: Alondagia Kultur etxea. Moila aretoa

Deitutakoak eta bertaratutakoak:

Deitutakoak	Bertaratutakoak
Zumaiako Udala	-Aitor Leiza -Aitor Ibarguengoitia
Kosta Lurralde Zerbitzua	-Belén Campomar -Cristina Maillo
Biodibertsitateko Zuzendaritza (EJ)	Marta Rozasi ezinezkoa zaio etortzea
Mendi eta Natura Ingurumen Zuzendaritza (GFA)	Iñigo Mendiola
Ingurumen Zuzendaritza (GFA)	Octavio Oruezabal
Nekazaritza eta Landa Garapen Zuzendaritza (GFA)	
URA Agentzia	José Ignacio Arrieta
Zumaiako Natur Taldea	
Aranzadi	Jon Etxezarreta
Itsas Enara Ornitologia Elkartea	Rafael Saizi ezinezkoa zaio etortzea
Geoparkea	
Algorri Interpretazio Zentroa	Ainara García
UPV/EHU. Ibai ekologia Departamentua	
AZTI	
Amador Prieto	
URKOME. Landa Garapenerako Elkartea	
IKT (HAZI)	
Txingudi Ekoetxea	
ENHE Gipuzkoa	
ENBA	

Adierazleak	Kopurua
Deitutako pertsonak/erakundeak	20
Bertaratutako pertsonak/erakundeak	10
Emakumezkoak	3
Gizonezkoak	7

Banatutako dokumentazioa:

- Plan Bereziaren aurkezpen dokumentua.
- Parte hartzeko saioaren ebaluazio galdetegia.
- Esparruaren kartografia.

Gai zerrenda:

- 📖 0.1.- Saioaren aurkezpena.
- 📖 0.2.- Bertaratutakoen aurkezpena.
- 📖 0.3.- Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren azalpena.
- 📖 0.4.- Talde dinamika.
- 📖 0.5.- Gai garrantzitsuen zerrenda.
- 📖 0.6.- Lehenetsuneko guneetarako jardueren proposamena.
- 📖 0.7.- Bestelako eragileen proposamena.
- 📖 0.8.- Mahai teknikoaren jarraipena egiteko protokoloa.

LANDUTAKO GAIAK

Saioa hasteko lortu beharreko helburuen eta bertaratutakoen aurkezpena aurkezpena egiten da, bileraren helburu orokorraren sarrerarekin batera.

Eremuan eragina duten ala izan dezaketen lurraldeko eta udalerriko plangintzen azterketarekin hasten da bilera. Saioa bost ekintza esparruen inguruan antolatzen da, hasierako ekarpenak ordenan jartzeko helburuarekin:

- ⇒ Santixoko dunak eta hondartza.
- ⇒ Gorostiagako betelana.
- ⇒ Bedua.
- ⇒ Lasarbeko irla.
- ⇒ Ingurumen ibilbideak eta behategiak.

Egindako ekarpenak honakoak dira:

PLANGINTZA

1.- Lurralde arloko planeamenduaren azterketa egin eta gero ez da antzeman inolako kontraesanik Plan Berezian proposatzen diren helburu nagusiekin. Hala ere, komeni da MA 2-4 Kortari dagokionez (Gorostiagako betelana), Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketaren izapidetzearen jarraipena egitea.

2.- Ekintza eremua Karakaseko (Santiago Erreka) ingurunera zabaltzea proposatzen da. Eremua Hezeguneen Lurralde Arloko Planak ordenatzen du eta Plan Bereziaren esparruarekin mugakidea da.. Eremu horren eta Santixokoaren arteko lotura (ekologikoa eta ibaikoa) mantentzea garrantzitsua dela egiaztatzen da.

DUNAK, HONDARTZA ETA ESTUARIOA

1.- Hobi septiko bat dago hondartzan dauden instalazioetarako, “behin-behinekoa” duela urteak eta gaitze legalik ez duena. Udal kudeaketarako arazoa dela eta Plan Bereziaren esparruan konpondu beharko da.

- 2.- Hondartzak ez du mugikortasun mugatua dutenen pertsonentzat ez eta larrialdi zerbitzuetarako sarbide egokirik.
- 3.- Hondartza eta duna Orrua aldera zabaltzen ari direla eta, hausnarketa egitea proposatu da, egungo erabilerak antolatzeke eta natura ingurumenarekin bateragarriak egiteko asmoz, hondartza ezin baita itxi.
- 4.- Landaretza inbaditzailea kanporatzea proposatu da. Foru Aldundiko Ingurumen Naturaleko sailetik neurriak hartzen ari direla diote eta, Aranzadiren bitartez, eremu horretako landarediaren eboluzioa aztertzen ari dela ere.
- 5.- Errepidearen azpian eta harri-lubetaren inguruan pilatzen diren harea kopuru handiak duna berrien sorrera errazten ari dira, jada babestuak izan direnak.
- 6.- Dagoeneko badauden bideetakoren bat erabilita, duna eremurako sarbidea eta horretan zeharreko igarobidea antolatzea eta batzea proposatu da; horretarako gai bereziak erabiliko dira (pasabide goratuak, egurra, eta abar) eta dunaren eboluzioa kontuan izan beharko da. Sarbidea muga liteke indarrean dagoen araudia aplikatuta (Zumaiaiko Arau Subsidiarioetan azaltzen den (Santixo 2. SOren Plan berezia).
- 7.- Eskumenen gaia ere aztergai da. Eusko Jaurlaritzako Portuen Lurralde Zerbitzuaren kasua aipatu da, Kaia SOren eremuaren barruan den paduraren zati bat itzuli eta Kosta Lurralde Zerbitzuaren eskumenera pasatzearen kontra baitago. Gerta daiteke Portuen Lurralde Zerbitzuak eskumen hori mantengu nahi izatea kirol portuaren handiagotze posiblearen aurrean, nahiz eta ez den horren aurreikuspenik ezagutzen. Edozein kasutan ere, proposatzen dena da eremuaren BIL (Batasunaren Intereseko Lekua) izaeraz informatzea –esku hartze posibleak mugatzen ditu baina ez ditu debekatzen- eta asmoa ingurua berreskuratzea dela esatea. Zumaiaiko udalaren ekimenez, Portuen Lurralde Zerbitzua hurrengo saioetara gonbidatzea erabaki da.
- 8.- Gaur egun dragatze lanak egiten ari dira Urolako ahoan, Balenziaga ontziolaren jarduerarekin zerikusia dutenak. Plan Bereziak ez du eskumenik gai horretan. Portuen Lurralde Zerbitzuaren eskumeneko Dragatze Plana aztertzea proposatu da. Aldi berean ontzi eta amarraleku zaharrak, hondoratutako ontziak eta abar antolatu beharko lirateke.
- 9.- Hondartzarako sarbidea den Zuloaga lursaileko hegoaldean dagoen ibilgailuentzako bidea kentzea proposatu da. Paduraren berrezartze naturala proposatu da, behin harri-lubeta kenduta, oinezkoentzako bide bakarra utziz. Bidea Zuloaga lursaileko barnealdeko mugatik pasaraztea litzateke aproposena eta horretarako jabeekin akordioa bilatzea planteatu da.
- 10.- Landaretza exotiko eta inbaditzailearen –yuca- inguruan zera aipatu da: jabeekin akordioak lortzea lorategietatik desagerrarazteko, horren truke udalak lorezaintza lanak bere gain hartuz lursail pribatuetan. Bileran parte hartzen duten guztiak ez daude horrekin ados.
- 11.- Hondartzaren bukaeran, andeatutako Zuloaga finkako hegoaldeko zonaldean, landaretzaren trantsizio naturala (birsortze naturala) proposatu da. Plan Bereziaren barruan edo bestelako antzeko egitasmorik egongo balitz, egin nahiko diren jarduerak martxan jarri ahal izateko finantziazioa lortzeko

aukera aurreikusi da, Eusko Jaurlaritzak ala Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, Europako LIFE programaren bitartez. Eremurako lehentasuna espezie exotikoen kontrola da.

12.- Aipatu den moduan, garrantzizkoa da larrialdi eta garbiketa zerbitzuak, ahalmen urriko pertsonak eta abar hondartzara sartzeko ibilgailuen sarbidea egitea, aldaparen makurdura egokituz. Aukeratuko den irtenbidearen arabera, Zuloaga lursaileko jabeekin akordio batera iritsi ala ipar-ekialdeko lur zerrenda bat desjabetu beharko da.

13.- Azkenik, ezkerreko ertzetik hondartzara itsasontziz iristeko sarbidea, egitura txiki baten bitartez, 100m aurreratu beharko litzatekeela aipatu da, oso atzean geratu baita.

14.- Zuloaga lursaileko hegoaldean dagoen eremu andeatuan ezpondaren pasealekurako sarbidea ere zaharberritu behar da.

GOROSTIAGAKO BETELANA

1.- Betelanaren azterketak proiektu sakona behar du beharrezko datuak zehaztasunez lortzeko (topografia, pilaturiko materialaren analisia eta abar), izan ere, bost metroko luzeko betelana baita, 260.000 m³ zehaztu gabeko materialez eraturikoa, adituen txostenak dioenez (+0,89 eta +2,38 kota naturaletik, horrek uholdeak jasateko arriskuan jartzen du itsasgoran eta uraldietan, +7,38 kotaraino lodiera handieneko zonaldeetan).

2.- Plan Bereziaren helburua eremu honi dagokionez, jarraibideak, irizpideak eta helburuak zehaztea eta proiektuak aurrera eramane beharrezko esku-hartzeen hasierako eskema ezartzea izan beharko litzateke. Izan ere, Urolaren Itsasadarraren KBEn Kudeaketa Planak dio padura ahal den neurrian berreskuratu behar dela. Proiektua faseka landu liteke baina, ezer baino lehen, lurren desjabetzea burutu beharko litzateke.

3.- Betelana osatzen duen materiala berrerabiltzea pentsatu da, gertuko lanetan edo Udalak kudeaturikoetan.

4.- Herritarrentzako sarbidea behatoki puntuetara mugatu beharko litzateke. Beste kontu bat da jakitea GKL izanik zenbat kostatuko litzatekeen azalera hori guztia desjabetzea.

BEDUA

1.- Eremuak ontziolaren inguruko jarduera kulturalen edo esku hartze arkitektonikoren bat hartuko luke. Badirudi Zestoako Udalak eraikin historikoak berreskuratzeko irizpide bera daukala.

2.- Berrantolatu beharko lirateke: ur-laminan egiten diren jarduera eta erabilerak (piraguismoa, arrantza, txalupan ibiltzea eta abar), amarratze puntuak, aingiraren arrantza tradizionala, Beduara ontziz iristeko ohitura eta lurrerako sarbideak.

3.- Eremura oinez iritsi ahal izatea proposatu da, garrantzitsua baita. Ibilbide ezberdinak eztabaidatu dira baina itsasadarraren ezkerreko ertzetik, Basusta eta Bedua arteko hegaletik, sarbide berririk egin gabe.

LASALDEKO IRLAREN ETA LANDARETZA RIPARIOAREN LEHENERATZEA

- 1.- Lasaldeko irlako astigar zurien saila ordeztea planteatu da, lizardi-haltzadiaren birsortzearekin batera. Ereduak uholdeak jasateko arriskua duela izan behar da kontuan.
- 2.- Halaber, zentral hidroelektrikoaren eraikina beste erabilera batzuetarako berreskuratzea proposatu da. Ubidea garbitu eta irekitzea planteatu da, ura errazago iragateko (uraldietan baino ez da gertatzen) eta eremuaren irla izaera lehengoratzeko.
- 3.- Oikiako ibarreko nekazaritzako eremuetan landaretza erriparioa berrezartzeari dagokionez, uste da jabeen eta udalaren artean akordioak lortzen ez bada, zaila izango dela hori berreskuratzea. Ingurugiroarekiko konpromisoen eta nekazaritzarako laguntzen arteko lotura azter daiteke (NPBren erreforma).

BEHATOKIAK ETA INGURUMEN IBILBIDEAK

- 1.- Itsasadarreko nabigazioa arautzea proposatu da, gaiaren eskumena Sustapen Ministerioaren Itsas Kapitaintzari dagokio eta Nabigazioaren Legean jasotzen da. Plan Bereziak, gutxienez, irizpideak eta jarraitu beharreko gomendioak ezarri beharko lituzke. Garrantzitsua da eskumena daukan organoa ados egotea eta, arautzea lortzen bada, udalak betearazi beharko luke kontrol eta zaintza neurrien bitartez.
- 2.- Erabileren arautzeari begira, interesgarria litzateke hegaztientzako aldi sentikorren azterketa egitea. Negupasarako eta migrazio igarotzerako gune garrantzitsua da eta, behin lasaitasuna berreskuratzen denean, habiatarako mesedegarria ere izan liteke. Arriskua kontrol sistema on bat ezarri eta baliaraztea da.
- 3.- Dagoeneko segurtasun eremua handiagotzeko proiektu bat bada zeinaren bidez animalien babeslekua mugarritzatzen den. Eskumena Foru Aldundiarena da (Ingurumen Naturalekoa).
- 4.- Zumaiaetik ibilbide zirkularra planteatu liteke. Bada bide sare bat Artadiko artaditik eta planoan azaltzen diren beste hainbat. Egokiena litzateke horietatik zirkuitu egitura ahalbidetuko duena aukeratzea [Zubiaundi - Flores – Artadi (behatokia) – Txantonenea – Gorostiaga – Bedua – Kanterako gaina – Basustagain – Basadizar (behatokia) – Egurko – Zubiaundi]. Horren ildotik hainbat hobekuntza egin beharko litzateke: Flores-Artadiko bidexketan, Txantoneneatik Gorostiagako sarbidean, Bedua eta Kanterako gainaren artean dagoen errepidean (zabalduta eta bidegorria edo espaloia txertatuz), Basustagain eta Basadizar arteko bidexkan eta abar. Ibilbide nagusia hori izan daiteke eta IL (ibilbide laburra) gisa seinala liteke. Azkenik, Artadiko bideak berreskuratzea proposatu da.
- 5.- Ibilbide zirkular horrez gain, Plan Bereziak bestelako ordezeko ibilbideak ere planteatu beharko lituzke lurraldeko beste puntu batzuetatik sartu ahal izateko.
- 6.- Behatokiak (begiratokiak, panelak edo beste batzuk) aipatu ibilbideei loturik egongo dira eta ezaugarri ezberdinak izango dituzte hainbat erabiltzailei egokitzeko. Hartara, honako behatoki hauek izan dira kontuan: Artadi (begiratokia), Gorostiaga (behatokia), Kanterako gaina (begiratokia) eta Basadizar (behatokia).

7.- Garrantzitsua da Artadiko auzoan aurre ikusita dauden bizilekuen zabaltzea kontrolatzen saiatzea eta baita Artaditik Gorostiagara jaisten den muino bizkarrean egin nahi den golf zelaiaren moduko proposamenen jarraipena ere egitea.

Mahai Teknikoaren bigarren bileraren akta (29/11/2012)

Bilera lekua: Alondegia Kultur Etxea. Moila aretoa

Deitutakoak eta bertaratutakoak:

DEITUTAKOAK	BERTARATUTAKOAK
Zumaiako Udala	-Aitor Leiza -Aitor Ibarguengoitia -Gorka Arregi
Zestoako Udala	
Getariako Udala	
Kosta Lurralde Zerbitzua	-Belén Campomar -Cristina Maillo Ezinezkoa zaie etortzea.
Portuen Lurralde Zerbitzua	
Bioaniztasun Zuzendaritza (EJ)	-Marta Rozas Ezinezkoa zaio etortzea.
Mendi eta Inguru Naturalaren Zuzendaritza (GFA)	-Iñigo Mendiola -Jon Zulaika
Ingurumen Zuzendaritza (GFA)	-Octavio Oruezabal
Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaritza(GFA)	
Uraren Euskal Agentzia	-José Ignacio Arrieta
Zumaiako Natur Taldea	-Inaxio Manterola
Aranzadi	-Jon Etxezarreta -Leire Oreja
Arkamurka	
Itsas Enara Ornitologia Elkartea	-Rafa Saiz -Leire Barriuso
Geoparkea	- Hilario Saiz
Algorri interpretazio zentroa	-Ainara García
UPV/EHU. Landareen Biologia eta Ekologia Saila.	
AZTI	
Amador Prieto	
URKOME. Landa garapenerako elkartea.	-Yurre Peñagarikano
IKT (HAZI)	
Txingudi Ekoetxea	
Urola Kostako Udal Elkartea	
Gipuzkoako Ur Konsortzioa	
ENHE Gipuzkoa	
ENBA	

ADIERAZLEAK	KOPURUA
Deitutako pertsonak/erakundeak	26
Bertaratutako pertsonak/erakundeak	14
Emakumezkoak	4
Gizonezkoak	10

Banaturiko dokumentazioa:

- Lanerako dokumentua: diagnostikoaren laburpena eta zonakatze zein lehenespen proposamenak.
- Eremuaren kartografia.
- Saioaren ebaluazio galdeketa.

Gai zerrenda:

-  **0.1.-** Saioaren aurkezpena.
-  **0.2.-** Bertaratutakoen aurkezpena.
-  **0.3.-** Talde dinamika.
-  **0.4.-** Hasierako zonakatze eta esku-hartze posibleen proposamenen inguruko eztabaida eta ekarpenak.
-  **0.5.-** Esku-hartzeen lehenespena.

LANDUTAKO GAIAK

Ingurumen zinegotzi Aitor Leizak ongiatorria eman du eta Itziar Eizagirreraren saioaren dinamika eta helburuak azaldu ditu.

EKOLUR enpresako Nerea Egiak zonakatze proposamena azaldu du, aurreko saioan adostu zena, lehenengo fasean egin diren hiru herritarrek parte hartzeko foroetan jasotako ekarpenak ikusirik.

Saioaren funtsezko helburua esku-hartze posibleak lehenetsi eta aztertzea izango da, horien garapena ahalbidetuko duten irtenbide teknikoak aztertzearekin batera. Jarduera bakoitzaren kasuan eskumena duen organoa zein den aztertu beharko da ere eta, hartara, jarduera eremu horretan eragile bakoitzaren egitekoa zein izango den definitu beharko da.

Tomás Aranburuk lanerako dokumentua aurkeztu du.

Egindako ekarpenak ondoko hauek dira:

Jon Etxezarretak (Aranzadi) proposatu du Plan Bereziak Hezeguneen Lurralde Arloko Planak antolatutako eremu guztiak (Karakaseko ibarra) jasotzea eta Zumaiaiko Natura Taldea horrekin bat dator. Nerea Egiak azpimarratu du, kasu horretan, errepidea eremuaren barruan geratuko litzatekeela eta ez dela harreman zuzenik ikusten Santixoko padurarekin. Zumaiaiko arkitekto Gorka Arregik aipatu du udal plangintza dela Karakaseko ibarra hoberen babesteko esparrua eta ez hainbeste Plan Berezia, azken horren xedea plangintza orokorra garatzea baita. Iñigo Mendiolaren (GFA Natura Ingurua) aburuz, funtsezkoena da eremuaren gaineko helburu argiak definitzea eta zer nahi den jakitea, aurrera eramango diren proposamenak zehazteko.

Jabetza pribatukoa den Zuloaga lursailak zenbait arazo ematen du: indarrean dagoen KBeren ikuspuntutik, Jon Etxezarretak dioenez, jabegoaren eta landarediaren ikuspuntutik Leire Orejaren arabera, eta abar. Horregatik egokiena udalak zer nahi duen zehaztea da, jakinda Plan Berezia ez dela babeserako azken tresna.

Jon Etxezarretak Basustan zehar zabaltzen diren baratzak lehengoratzeari proposatu du, Rafa Saizekin (Itsas Enara) bat eginez. Izan ere, horretarako zailtasunik ez dago eta padurarako potentzial handia dute BIL eremuan baitaude, eta, hortaz, desjabetzeko beharrik ez dago eta.

Leire Orejak galdetu du zer erabilera izango duen Artadik, basoa ustiatu ala berreskuratu nahi den, eta Nerea Egiak erantzun dio litekeena dela egungo kudeaketa eredia gogortzea. Jon Zulaikak nabarmendu du, GFAk ezarritako helburuak aintzat hartuz gero, egungo kudeaketa sistema mantenduko litzatekeela.

Rafa Saizek proposatu du Torrontegi baserriaren inguruko artadi eremuak Plan Berezian sartzea. Iñigo Mendiola, aurretik esandako berdina erantzun du, argi izan behar dela zeintzuk diren helburuak eta babeserako zein lehengoratzeko eremuak, eta Plana horietara mugatu. Jon Zulaikak (GFA) esan du artadi horiek KBEn esparrutik kanpo geratu zirela, prozesu hartan azpimarratu zen moduan, estuarioko babeserako eremua baita eta, ondorioz, elementurik garrantzitsuenak estuarioari dagozkionak zirela, eta ez horrenbeste alboko eremuak.

LEHENESPENA

SANTIXO ETA UROLAREN BOKALEA

Jon Zulaikak Santixoko padurako hegazti fauna babesteko landare pantaila bat erabiltzea proposatu du, hegoaldeko sarbidetik ibilgailuei sarrera debekatzearekin batera, potentzial handiko eremua baita. Bestalde, eremuko berezko materiala berreskuratuko luke (mendi bidea egin baino lehenagokoa) eta gunea garaiera egokietara lehengoratu luke. Esku-hartze horien eskuduntza Portuen Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza) dauka, kirol portuak eragindako eraginak hobetzeko konpromisoa hartu baitzuen bere garaian (Ingurumen-eraginaren deklarazioa).

Aitor Leizak, kirol porturako oinezkoen sarbidearen eta ezpondaren artean, zubi bat eraikitzeak aukera aipatu du, baina Jon Etxezarreta ez da ados egon. Rafa Saizen iritziz, hegaztien fauna berreskuratzeak Karakaseko eremua lehengoratu beharko litzateke, bere egunean erreka kanalizatzeko lanak legalak ez zirelako.

José Ignazio Arrietak (Ur Agentzia) galdetu du ea posiblea den kirol portuaren saneamendua Basustako HUArekin lotzea eta Inaxio Manterolak erantsi du hondartzako hobi septikoa duna-sistematik atera beharko litzatekeela. Azkenik, Aitor Leizak egokitzen du Portuen Lurralde Zerbitzuarekin biltzea gai hori jorratzeko. Leire Orejak uste du garrantzitsua dela Portuen Zuzendaritzari bere garaian hartutako konpromisoak betearaztea (Ingurumen-eraginaren deklarazioa), hegoaldeko sarbidea kendu eta paduraren erdiaren gaineko mantentzea bere gain hartzearenak, alegia, izan ere, beste erdia esku-hartzearen ondorioz andeatu baitzen. Eraginkorrena administrazio horrekin akordio batera iristea da.

ARTADI-BEDUA

Rafa Saizekin ados (Itsas Enara), Jon Etxezarretak (Aranzadi) esan du Basadizarreko baratzak 'Ingurumena hobetzeko' kategoriaren barruan sartu behar direla. Erraz berreskura daitekeen esparrua da, ildartea iragazkor egitea baino ez omen dago. Tomás Aranburuk (Ekolur) nabarmendu du Hezeguneen LApek 'Nekazaritza-abeltzaintza eta landazabal' kategoriaren barnean hartzen duela eremua eta, zentzu horretan, hautabide bat izan litekeela egungo nekazaritza jarduerak irauten duten bitartean onartzea, eta, desagertzen direnean, ingurunean padura berrezartzea.

Jon Etxezarretaren iritziz ez da egokia bidexkak mantentzea (Basadizarretik Basustagainara) hegaztien fauna babestuko bada. Aitor Leizak erantzun dio distantzia nahikoa dagoela bidexka horien eta hegaztien eremu nagusiaren artean (Basazpia, Usurbirillaga), hori eskuin ertzean baitago eta hegaztiekin aurretiko etzaleku gisa besterik ez baitute erabiltzen ezker ertza.

Gorostiaga leheneratzeko jarduera posiblei loturik, Jon Etxezarretak proposatu du, Gorostiagako betelanaren zati bat udalarena izanik, horretan zuzenean esku-hartzea 6 metroko igarotze zortasuna utziz. Udaletik erantzun diote betelanaren zati bat baino ez dela udal jabetza (beste batzuen artean, J.M. Korta eremuarekin mugakidea den lagapen lursaila) eta, edozein kasutan ere, lursailaren desjabetzea egin beharko litzatekeela lehengoratzeko jarduera burutzeko.

Leire Orejak *Limonium humil*eren populazioaren garrantzia azpimarratu du, baita kota aldatuz gero, hori babesteko beharra. Esan duenez, espezie horri buruzko plan bat bada, aintzat hartu beharrekoa.

Betelana lehengoratzeko jardueri buruzko eztabaida sortu da. Iñigo Mendiola (GFA) esan du ez dela proiektu faseari dagozkion xehetasunen inguruan eztabaidatzeko unea, alderdi horiek guztiak horretan definitu beharko baitira, eta GFAko Mendia eta Natura Ingurune sailak proiektu hori egitearen alde egingo lukeela. Jon Zulaika bat dator iritzi horrekin esku-hartzearen handitasuna dela eta. Nerea Egiak erantsi du lehengoratzeko fasea egitea dagoela.

Tomás Aranburuk planteatu du eremua 'faunaren babesgune' izendatzeko aukera eta GFAko arduradunek nabarmendu dute badela oraindik burutu gabe dagoen aurretiko egitasmo bat, eremu zabalagoa hartzen duena, eta, udalak proposatuko balu, errazago izango litzatekeela proiektua aurrera ateratzea.

DORNUTEGI-OIKIA

Ibaiaren ertzetan landatutako kanaberak kentzearen inguruko iritziak trukatu dira. Jon Zulaikak (GFA) azpimarratu du landaretza inbaditzailea dela eta ez duela lekurik inguru horretan, KBEren Kudeaketa Planak ere horixe berresten du eta. Onartu du jabeekin arazoak egon daitezkeela baina lehentasunezko gaitzat jotzen du, Plan Berezian sartu beharrekoa.

Inaxio Manterolak (Beduaola) jakin nahi izan du lokatzen inguruan azterketarik ote den eta zelulosa gehiegi egoteak nola eragiten duen; José Ignacio Arrietak (Ur Agentzia) erantzun dio badela eremuko sedimentuen azterketa bat.

José Ignacio Arrietak jakin nahi izan du Yarzako ubidea zer zen eta zertarako erabiltzen zen eta Aitor Leizak zentral ohi bat dela argitu dio. Azkenik Tomás Aranburuk ubide berria ireki (ur geldiak

osasungarritasun arazoak sortzen ditu) eta penintsula haltzadi gisa berreskuratzeko aukera aipatu du, uholdeak jasateko arriskua duen zona baita. José Ignacio Arrietak nabarmendu du ubidea erabiliko ez bada irtenbidea hori erabat estaltzea izan daitekeela.

Gogoeta gehiagorik gabe, saioa amaitutzat jo da.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROAK

1. HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA. SANTIXO 2012KO URRIAK 09. ALGORRI INTERPRETAZIO ZENTROA		
Bileraren helburuak:		Gai zerrenda:
• UIBMPB ezagutzera eman • Hasierako dokumentua garatzeko sarrerako aurkezpena • Eragileak elkar ezagutzea • Komunikaziorako bideak egokitzea • Funtsezko gaien proposamena • Beste eragile batzuk proposatzea • Zalantzak, kezak eta abar argitzea		 0.1.-Saioaren aurkezpena.  0.2.-Bertaratuko aurkezpena  0.3.- Urola Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren azalpena  0.4.-Talde dinamika.  0.5.-Gai garrantzitsuen zerrenda  0.6.-Esku-hartzeen lehenespen proposamena  0.7.-Beste eragile batzuk proposatzea
Hizlariak:		Banatutako dokumentazioa:
Ingurumen zinegotzia: Aitor Leiza. EKOLURreko erredakzio taldea: Tomas Aranburu eta Nerea Egia MIRUA21eko erredakzio taldea Moderazioa: MIRUA21eko Itziar Eizagirre		• UIBMPBren aurkezpen dokumentua. • Parte hartzeko saioari buruzko ebaluazio galdetegia. • Eremuaren kartografia.
Deitutako erakundeak:		
- Herritarrak eta ingurumenaren babeserako elkarteak.		
	Adierazleak	Zkia:
	Deitutako pertsonak/erakundeak:	Deialdi orokorra
	Bertaratutako personak/erakundeak:	11
	Gizonak	8
	Emakumeak	3

AIPATUTAKO GAIAK
1.- Espezie inbaditzaileei buruz honako proposamena luzatzen da: txaletetan, lorategietan eta hainbat lekutan daudenez, eskualde mailako ekimen baten bitartez horiek kentzea, ondoren hazien bitartez ugaltzea ez daitezen. 2.- Punta inguruan eta garai batean uharridia eta haztegia izan zena egun utzita dago eta igeritoki bilaka daiteke herritarren onurarako. 3.- Portua eraiki zenean lan horri hainbat argudiatze egin zitzaizkion baina ondoren ez ziren bete. Orain, Plan Bereziaren bitartez, berriro azter liteke, aurrekoa iruzurra izan zelako. 4.- Plan Bereziaren aipatu beharko litzateke dunaren eremua dinamiko dela eta mugitzen doala. 5.- Zera galdetu da: kai inguruan negu partean aingirak arrantzatzen direnez, ondoren, plana indarrean sartzen denean, ea horrek horrela izaten jarraituko duen ala eremua mugatuko den. 6.- Korrikalariak ez dira ia dunan sartzen, hondartzarako bidea erabiltzen dute gehien bat. 7.- Harri-lubetaren zabalera aztertu beharko litzateke, puskatzen baldin bada harea hori guztia ibaira joango baita. 8.- Zuloaga lursaila Planaren esparrutik kanpo gelditzeak deigarria iruditu zaie eta horren zergatia galdetu dute. Bestalde, finkaren jabetza eremua zehazki zein den jakiteko modurik ba al dagoen galdetu da, horrek sarbideen gaia ere baldintzatuko luke eta. 9.- Portuen eta Kosta Lurralde Zerbitzuaren arteko eskumenak argi bereiztea eskatu da. 10.- Ezpona egin zenetik ezin da Zumaia ikusi. Hau astakeria izanik irtenbideren bat proposatzea eskatu da eta ezpona zuzentzea posiblea balitz, esku-hartze hori gogoan hartzeko eskatu da. Horren arriskua da marea biziarekin hondartzako harea itsasoak eramatea.

AIPATUTAKO GAIAK

- 11.- Ez litzateke dragatze lanik egin beharko.
- 12.- Ibaiak lehengo indarra ez duela aipatu da.
- 13.- Karakas inguruko eremua Plan Berezian sarturik dagoen galdetu da.
- 14.- Hondartzaren erabilerak mugatu edo antolatu beharko lirateke, udaran penagarria baita. Erabilera intentsiboa mugatu beharko litzateke.
- 15.- Dunen artean dauden bideak ere murriztu beharko lirateke eta akaso zirkuitu mugatu bat proposatu.
- 16.- Ur hondakinatarako sarea falta direla aipatzen da.
- 17.- Dunaren azpian ur geruzaren bat dagoen jakin nahi izan da eta prospekziarik egin ote den hori aztertzeke.
- 18.- Kirol portuak botatzen dituen hondakinen arautzea eskatu da.
- 19.- Plan Bereziaren eremuan historian zehar egin diren erabilerak eta kulturaren ikuspuntutik sor daitezkeenak ere kontuan hartu beharko lirateke, balio historiko handiko gaiak sortu daitezkeelako honen ildotik.
- 20.- Dragatzearekin zer esan nahi den jakin nahi izan da eta azpimarratu da Plan Bereziak jarduera horri gomendioak egin beharko lizkiokela.
- 21.- Horrelako Plan Berezi batek zer ekar dezakeen galdetu da, hau da, edukiak zeintzuk izango diren.

1. HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA. ARTADIA-BEDUA 2012KO URRIAK 10. ALGORRI INTERPRETAZIO ZENTROA		
Bileraren helburuak:		Gai zerrenda:
• UIBMPB ezagutzera eman • Aurrerapen dokumentua garatzeko sarrerako aurkezpena • Eragileak elkar ezagutzea • Komunikaziorako bideak egokitzea • Funtsezko gaien proposamena • Beste eragile batzuk proposatzea • Zalantzak, kezak eta abar argitzea		0.1.-Saioaren aurkezpena. 0.2.-Bertaratuko aurkezpena 0.3.- Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren azalpena 0.4.-Talde dinamika. 0.5.-Gai garrantzitsuen zerrenda 0.6.-Esku-hartzeen lehenespen proposamena 0.7.-Beste eragile batzuk proposatzea
Hizlariak:		Banatutako dokumentazioa:
Ingurumen zinegotzia: Aitor Leiza. EKOLURreko erredakzio taldea: Tomas Aranburu eta Nerea Egia MIRUA21eko erredakzio taldea Moderazioa: MIRUA21eko Itziar Eizagirre		• Plan Bereziaren aurkezpen dokumentua. • Parte hartze saioaren ebaluazio galdetegia. • Esparruaren kartografia.
Deitutako erakundeak:		
- Herritarrak		
	Adierazleak	Zkia:
	Deitutako pertsonak/erakundeak:	Deialdi orokorra
	Bertaratutako personak/erakundeak:	6
	Gizonak	6
	Emakumeak	

AIPATUTAKO GAIAK
1. Gorostiagako betegarriarekin zer egiteko asmoa dagoen jakin nahi izan dute eta bertako materiala berrerabilgarria balitz, onena era egokian kudeatzea litzatekeela diote. 2. Uholdeen arriskua aipatu da, naturarako eta sistemarako onuragarria izan daitekeela ere kontuan izanik. 3. Araztegia dagoen lursaila, bere garaian administrazioak bereganatu zuena, era berean geratuko den jakin nahi izan dute. 4. Parte hartzaile batek aipatu du Plan Berezi honek natura arloak aurre ikusi beharko litzatekeela soilik eta ez kultur ondarearekin erlazioa duten elementuak. Halaber, dagoen diru apurra horretara bideratu beharko litzatekeela esan du. 5. Beste herritar batek esan du Plan Bereziaren baitan dauden jarduerak aurrera eramatean ondare kulturalaren ikuspuntutik garrantzizkoa den elementuren bat azaldu daitekeela eta, orduan, hori ere kontuan izan beharko litzatekeela, nahiz eta helburu nagusia natura babestu eta mantentzea izan. 6.- Itsasadarrean dauden lokatzak mugitzen ez direnez hainbat animalia itotzen dela aipatu da, sistema buxatua dagoela esan da eta batzuetan gizakien jardura ere onuragarria dela. Hartara, plana garatzean naturaren ikuspuntuaz gain beste ikuspuntu batzuk aintzat hartzea onuragarria litzatekeela esan dute. 7. Aisiarako ontziekin zer egitea pentsatu den jakin nahi izan dute, hau da, Planak gai horrekin lotuta zer aurreikusten duen: debekatzea ala erabilera baimentzea. Nabigatzeko mugatzeren bat izango duten jakin nahi izan dute, izatekotan noraino iritsiko den, eta abar. 8. Norbaitek ibaitik bizi nahiko balu, planak aukera emango liokeen jakin nahi izan da. 9. Nabarmendu da Plan Berezia jendea informatzeko eta sentsibilizazio lana egiteko erabili beharko litzatekeela; ingurumena ezagututa hori babestea errazagoa bailitzateke.

AIPATUTAKO GAIAK

10. Ikuspuntu utilitarista erabiltzen ari dela aipatu du pertsona batek eta, horren ildotik zertarako babestu planteatu da. Bere esanetan, Urolak ez du zertan parke tematikoa izan, Algorrin gertatzen den moduan. Ez omen du zertan salgarria izan eta plana garatzerakoan horrekin kontuz ibili beharko litzatekeela azpimarratu du.
11. Ibaiertzak nahiko egoera txarrean daude, leku batzuetan erortzen dira eta beste batzuetan zuloak daude eta horrekin zer egitea pentsatu den jakin nahi izan da. Erreka ziztorrak ere kontuan hartzea garrantzitsua dela aipatu da.
12. Nahiz eta daturik ez egon, trenbideak sorrarazten duen zarataren eragina aintzakotzat hartu beharko litzateke.
13. Gune batzuetan paisaian eragiten duten kableekin zer egingo den galdetu dute.
14. Irlaren parean dauden lursailak pribatuak ala publikoak diren jakin nahi izan da.

1. HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA. OIKIA		
2012KO URRIAK 16		
Bileraren helburuak:		Gai zerrenda:
• UIBMPB ezagutzera eman • Aurrerapen dokumentua garatzeko sarrerako aurkezpina • Eragileak elkar ezagutzea • Komunikaziorako bideak egokitzea • Funtsezko gaien proposamena • Beste eragile batzuk proposatzea • Zalantzak, kezka eta abar argitzea		📖 0.1.-Saioaren aurkezpina. 📖 0.2.-Bertaratuko aurkezpina 📖 0.3.- Urolaren Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren azalpena 📖 0.4.-Talde dinamika. 📖 0.5.-Gai garrantzitsuen zerrenda 📖 0.6.-Esku-hartzeen lehenespen proposamena 0.7.-Beste eragile batzuk proposatzea
Hizlariak:		Banatutako dokumentazioa:
Ingurumen zinegotzia: Aitor Leiza. EKOLURreko erredakzio taldea: Tomas Aranburu eta Nerea Egia MIRUA21eko erredakzio taldea Moderazioa: MIRUA21eko Itziar Eizagirre		• Plan Bereziaren aurkezpen dokumentua. • Parte hartze saioaren ebaluazio galdetegia. • Esparruaren kartografia.
Deitutako erakundeak:		
- Herritarrak		

	Adierazleak	Zkia:
	Deitutako pertsonak/erakundeak:	Deialdi orokorra
	Bertaratutako pertsonak/erakundeak:	15
	Gizonak	4
	Emakumeak	11

AIPATUTAKO GAIK
1. Zuhaitzen landaketa ez da nekazaritza lanetarako onuragarriak. 2. Ez dituzte kanaberak inbaditzailatzat hartzen, bakoitzak bereak zaintzen omen ditu eta urtero moztu eta kudeatzen dituztela diote. Nekazaritza lanetarako erabiltzen ei dituzte. 3. Jakin nahi izan dute zer lortu nahi den Plan Berezi honekin, zer ondorio izango duen haientzat eta, aldi berean, zer nolako ekintzak dauden aurreikusitak. 4. Ibaia garbitzea garrantzitsua iruditu zaie, harriz beteta baitago eta uholde arriskua handitzen baita horrela. 5. Errekari forma eman behar zaiola eta haren kanalizazioa eskatu da. 6. Eremu honek dagoeneko mugatze batzuk baditu eta Plan Berezi honekin zein mugatze egongo diren jakin nahi izan dute 7. Aipatu dute ibaiertzetan dauden zuhaitzak eta sastraka baxuak ere ez direla onak nekazaritza lanetarako. 8. Haien lursailetan negutegi bat egin nahiko balute Plan Bereziak baimena eman ala debekatuko ote lukeen galdetu dute 9. Goiko aldea garbitzen ez bada errekaren beheko partea garbitzea alferrikakoa dela esan dute. 10. Beduako irla bisoiak babesgune izateak laboreetan izango lukeen eraginagatik kezkatu dira. 11. Jakin nahi izan dute igarotze zorgunea zenbatekoa den. 12. Plan Bereziak zer abantaila ekarriko dien ezagutu nahi izan dute. 13. Jakinarazi dute, azken uholdeak direla eta, 'erretenak' beteta daudela eta udalak ez duela horren gainean ezer egin 14. Esan dutenez, presa erori zenetiko harriak oraindik han daude eta ez diote urari pasatzen uzten. 15. Autobidearen zarata arazo bat dela diote eta horren inguruan zer edo zer egiterik dagoen galdetu dute.

4.3. III. eranskina- PARTE HARTZEAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Ondoren eragileen artean banaturiko parte hartzearen ebaluazio txostenak atxiki dira, denek erantzuten ez dutela kontutan izanik.

1. MAHAI TEKNIKOA

EBALUAZIO GALDETEGIA

Hurrengo atalean emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen sintesia aurkeztuko da; emaitzok lehenengo Mahai Teknikoa bukatzerakoan banatu ziren ebaluazio galdetegiaren bidez lortu ziren eta zortzi erantzun jaso zituzten.

Bileraren emaitza kuantitatiboak (n=8)

	1	2	3	4	5
1.- Parte hartze prozesuarekiko asetze maila orokorra.				5	3
2.- PBren aurretikoko edukien aurkezpena.				5	3
3.- Deialdi-sistema.				7	1
4.- Antolaketa orokorra.				6	2
5.- Parte hartze dinamika.				3	5
6.- Gauzatze lekua.				3	5
7.- Saioaren ordutegia eta iraupena.			2	4	2
8.- Hasierako itxaropenen betetze-maila				6	2

*1 gutxienetik-5 gehiengora.

“Zer da saioan zehar gehien baloratu izan duzuna?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Eragile ezberdinen inplikatzeara.
- Lortu nahi denaren azalpen argia.
- Eskumena duten administrazio guztiak kontuan hartu izana elkarlana lortzea aldera.
- Proposamen ezberdinen eta ideien partekatzea.
- Parte hartzea eta lortu den dinamika positiboa.
- Esparruaren ikuspegi orokorra eta ikuspuntu ezberdinen partekatzea.
- Bileraren helburua eta egindako ekarpenak.

“Ondorengo saioei begira zer hobetuko zenuke?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Saioak arratsaldera pasa beharko lirateke pertsona gehiago joan ahal izateko.
- Eragile gehiagok parte hartzea.
- Dokumentazioa aldeztu aurretik ematea, bilerak baino lehen.
- Arratsaldean ere bilerak egitea administrazioetik kanpoko pertsonak egon ahal izateko.
- Ordutegia, eragile, organo eta abar gehiago parte hartu ahal izateko.
- Iraupena.

EBALUAZIO GALDETEGIA

2. MAHAI TEKNIKO

Hurrengo atalean emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen sintesia aurkeztuko da; emaitzok lehenengo Mahai Teknikoa bukatzerakoan banatu ziren ebaluazio galdetegi bidez lortu ziren eta hamahiru erantzun jaso zituzten.

Bileraren emaitza kuantitatiboak (n=13)

	1	2	3	4	5
1.- Parte hartze prozesuarekiko asetze maila orokorra.			1	9	1
2.- PBren aurretikoko edukien aurkezpena.				10	1
3.- Deialdi-sistema.				8	2
4.- Antolaketa orokorra.				9	2
5.- Parte hartze dinamika.			2	6	3
6.- Gauzatze lekua.				8	3
7.- Saioaren ordutegia eta iraupena.		1	1	10	
8.- Hasierako itxaropenen betetze-maila			4	6	1

*1 gutxienetik-5 gehiengora.

“Zer da saioan zehar gehien baloratu izan duzuna?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Mamira joan da. Oso bideratua.
- Denbora ondo aprobetxatu izana.
- Partaideen kualifikazioa.
- Parte hartzea. Sektore eta erakunde anitzen ordezkariak bildu izana.
- Parte hartze handia eta interesgarria.
- Hitz egiteko eta adierazteko aukera izana eta eragileen arteko kontrastea.
- Parte hartze dinamika egokia.

“Ondorengo saioei begira zer hobetuko zenuke?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Ondorengo saioak konkretuagoak izango direla pentsatzen dut.
- Saio motz eta konkretuagoak, ordubetekoak.
- Parte hartzea gehiago moderatu beharko litzateke.
- Antolatzaileak erradikalagoa izan behar du eta gaia zuzenago bideratu.
- Jendeari parte hartzen utzi behar zaio baina neurrian.
- Gehiago moztu beharko litzateke.

EBALUAZIO GALDETEGIA

2012ko urriaren 9ko Herritarrek Parte Hartzeko Foroaren ebaluazioa. SANTIXO

Hurrengo atalean emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen sintesia aurkeztuko da; emaitzak lehenengo Mahai Teknikoa bukatzerakoan banatu ziren ebaluazio galdetegi bidez lortu ziren eta hamar erantzun jaso zituzten.

Bileraren emaitza kuantitatiboak (n=10)

	1	2	3	4	5
1.- Parte hartze prozesuarekiko asetze maila orokorra.			1	6	3
2.-PBren aurretikoko edukien aurkezpena.		1	3	3	3
3.-Deialdi-sistema.	2		3	2	4
4.-Antolaketa orokorra.		1	1	4	4
5.-Parte hartze dinamika.			1	3	6
6.-Gauzatze lekua.				5	5
7.-Saioaren ordutegia eta iraupena.		1	2	5	2
8.- Hasierako itxaropenen betetze-maila		1	3	2	4

*1 gutxienetik-5 gehiengora.

“Zer da saioan zehar gehien baloratu izan duzuna?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Parte hartzea bera.

“Ondorengo saioei begira zer hobetuko zenuke?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Ordutegia.
- Saioak bukatzen jakin behar da sentsazio txarrarekin ez joateko. Ordubetekoak izan beharko lirake, gehien jota.

EBALUAZIO GALDETEGIA

2012ko urriaren 10eko Herritarrek Parte Hartzeko Foroaren ebaluazioa. ARTADIA-BEDUA

Hurrengo atalean emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen sintesia aurkeztuko da; emaitzak lehenengo Mahai Teknikoa bukatzerakoan banatu ziren ebaluazio galdetegi bidez lortu ziren eta bi erantzun jaso zituzten.

Bileraren emaitza kuantitatiboak (n=2)

	1	2	3	4	5
1.- Parte hartze prozesuarekiko asetze maila orokorra.		1		1	
2.-PBren aurretikoko edukien aurkezpena.			2		
3.-Deialdi-sistema.	1		1		
4.-Antolaketa orokorra.			1	1	
5.-Parte hartze dinamika.			1		1
6.-Gauzatze lekua.				1	
7.-Saioaren ordutegia eta iraupena.			1		1
8.- Hasierako itxaropenen betetze-maila		1		1	

*1 gutxienetik-5 gehiengora.

“Zer da saioan zehar gehien baloratu izan duzuna?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Elkar ezagutzea.

“Ondorengo saioei begira zer hobetuko zenuke?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Parte hartzaileak “etxerako lanak” eginda etortzea.

EBALUAZIO GALDETEGIA

2012ko urriaren 9ko Herritarrek Parte Hartzeko Foroaren ebaluazioa. OIKIA

Hurrengo atalean emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen sintesia aurkeztuko da; emaitzak lehenengo Mahai Teknikoa bukatzerakoan banatu ziren ebaluazio galdetegien bidez lortu ziren eta lau erantzun jaso zituzten.

Bileraren emaitza kuantitatiboak (n=4)

	1	2	3	4	5
1.- Parte hartze prozesuarekiko asetze maila orokorra.			2	1	
2.-PBren aurretikoko edukien aurkezpena.	1		2		
3.-Deialdi-sistema.	2	1			
4.-Antolaketa orokorra.			1	1	1
5.-Parte hartze dinamika.		1		1	1
6.-Gauzatze lekua.		1		1	1
7.-Saioaren ordutegia eta iraupena.			1	1	1
8.- Hasierako itxaropenen betetze-maila		2	1		

*1 gutxienetik-5 gehiengora.

“Zer da saioan zehar gehien baloratu izan duzuna?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Parte hartzea.
- Auzora bertara etorri izana. Auzotarrekin zuzenean hitz egitea eta haiek kezak entzutea.

“Ondorengo saioei begira zer hobetuko zenuke?” galderari emandako erantzunen sintesia.

- Lehendabizikoa da Urola ibaia garbitzea eta ondoren gainontzeko beste guztia.
- Ezer egin aurretik, lehena ibaia garbitzea eta horren bidea zehaztea da eta ondoren belardietan dauden ubideak ere garbitu beharko lirake.

4.4. IV. eranskina- SEKTORE TXOSTENEI ETA HASIERAKO ONARPENEO DOKUMENTUARI EGINIKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNEN TXOSTENA

KONTSULTA SEKTORIALAK ETA EMANDAKO ERANTZUNAK

1.- Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorraren (Nekazaritza eta Ingurumenaren Ministeritza) txostena. Gazteleraz.

Jaulkipen data 2013/08/01.

Plan Bereziaren laburpen bat eta erasandako mugaketa espedienteen zerrenda egin ondoren, zenbait adierazpen egiten ditu:

- *“En los Planos de Información se dibuja la ribera del mar, la línea de deslinde del dominio público marítimo-terrestre y aquella otra que delimita la zona sobre la que recae la servidumbre de protección. En el señalamiento de la servidumbre de protección se observan una serie de errores, entre los que destacan: zona de Zubiandi, cerca del puente peatonal, donde no se representa una pequeña zona de la servidumbre de protección; zona de Basazpia, se dibuja erróneamente la servidumbre de protección con una anchura de 20 metros en lugar de 100 metros.*
- *Estos errores deberán subsanarse en los Planos con arreglo a los datos que, previa petición, facilitará el Servicio Provincial de Costas en Guipúzcoa.*
- *Asimismo, las líneas de ribera del mar, deslinde y servidumbre, deberán reflejarse también en los Planos de Ordenación.*
- *No obstante lo anterior, se observa en los Planos de las Fichas de los seis Ámbitos de Intervención que se delimitan en el Plan Especial, se representan de forma sensiblemente correcta las mencionadas líneas de ribera del mar, deslinde y servidumbre.*
- *En cualquier caso, deberá tenerse en cuenta que, ante cualquier desajuste en la representación de las citadas líneas de ribera del mar, deslinde del dominio público marítimo-terrestre y servidumbre de protección, prevalecerán los datos de los planos de deslinde sobre los reflejados en el planeamiento”.*

Amaitzeko, txostenak Plan Bereziko Hirigintza Arauen zehaztapenak (7. artikulua) laburtzen ditu eta ez du hauen gainean bestelako adierazpenik egiten.

1.- ERANTZUNA:

‘Urolako Itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia’ren Hasierako Onarpen dokumentuaren lantze prozesuan Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorrak igorritako txostenean aipatutako akatsak zuzenduko dira, eta baita Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzu Probintzialari eskatutako datuak jaso ondoren identifikatuko direnak ere, hala izango balitz.

Itsasertzari eta itsas eta lehorreko jabari publikoaren eta babes zortasuneko eremuaren mugaketari buruzko lerroak ere Antolaketa Planoetan islatuko dira.

Txostenean, mugaketa planoetako datuak Antolaketa Planoetan azaltzen direnei gailenduko zaizkielari buruz aipatutakoa Hirigintza Arauen 7. artikuluan gehituko da.

Behin espedientea zuzendu eta osatuta, behin-betiko onarpena baino lehen Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Orokorrari helaraziko zaio Gipuzkoako Kostaldeko Zerbitzu Probintzialaren bitartez, Kostaldeko Legearen 112 a) eta 117.2 artikuluek agintzen duten txostena igortze aldera.

2.- Ur Agentziako Plangintza eta Lanen Zuzendaritzaren txostena ‘Urolako Itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia’ren Hasierako Onarpen dokumentuari buruz. Gazteleraz.

Jaulkipen data 2014/01/09.

Txostenak azpimarratzen du Plan Bereziaren helburu eta neurriak Ur Agentziaren irizpideekin bat datozela, soilik bi adierazpen eginez:

- *“En el artículo 12 referente a las áreas inundables, es necesario incluir la nueva normativa vigente relativa a la limitación de usos en zonas inundables derivada de la reciente aprobación del Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental (7 de junio de 2013), que ordena los usos en estas zonas de forma muy similar a la propuesta en la modificación del PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.*
- *Incluir como objetivo la conexión del puerto a la red de saneamiento existente con el fin de eliminar los vertidos procedentes del puerto.”*

2.- ERANTZUNA:

12. Baldintzatzaile gainjarriak dituzten zonetako erabilera eta eraikuntza erregimena, artikulua 1. atala, *Ur azpian gera daitezkeen eremuak*, aldatuko da, plangintza dokumentu berrien erreferentziak (Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoa¹, Ibai eta Errekak y EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren lehen moldaketa²) barneratzeko.

Plan Bereziaren helburu orokorrekin bat, Behin-behineko Onarpen dokumentuan kirol-portuko isuriak ekiditeko helburua gehituko da eta, horretarako, dokumentua moldatuko da 03.04.01 jarduketan deskribatutakoaren arabera landu behar den proiektuaren helburuen artean kirol-portuarekin lotura ere adierazteko.

3.- Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak ‘Urolaren Itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia’ri buruzko galderari.

Jaulkipen data 2013/12/19.

¹ Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoa onartzen duena

² 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko LAP-ren aldaketa behin betiko onartzen duena.

Txostenak dio ez dagoela esku beharreko eremuan irailaren 30eko, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko 165/2008 Dekretuan edo honen Eguneratzearen Zirriborroan erregistratutako lursailik.

Txostenak adierazpen hauek ere egiten ditu:

- a) *“Aztertzeke eremuan lurzorua polui dezaketen jardueraren bat egin bada noizbait (Lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen edo lurzorua polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoruak poluituaj daudela deklaratzeko iripideak eta arauak ezartzen dituen 9/2005 Errege Dekretuaren eranskinetan aipatzen direnak), inbentarioan sartu beharko da eta inbentarioan sartuta egon balitz izango lituzkeen eragin berberak izango ditu.*
- b) *Eraberean, lurrak mugitu eta poluzio-zantzuak aurkituz gero, [Eusko Jaurlaritzako] Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen 10. Artikuluak agintzen duenez”.*

3.- ERANTZUNA:

Bi adierazpenak Plan Bereziaren Hirigintza Arauetan sartuko dira 29. *Lurzoru poluituei buruzko zuzentarau eta erregulazioak* artikuluko berriaren bitartez.

UKITUTAKO UDAL ADMINISTRAZIOEK AURKEZTUTAKO EBAZPENEN LABURPENA

4. Zestoako Udaleko Osoko Bilkuraren Erantzuna Zumaiaiko Udalak Zestoako Udalari eginiko Plan Berezia landu eta izapidetzeko adostasuna azaltzeko proposamenari.

Jaulkipen data 2013/07/26.

Zestoako Udalak 2013ko uztailaren 24an buruturiko Osoko Bilkuran erabaki hauek adostu ditu:

- a) *LEHENA: Zestoako Udalaren adostasuna ematea Zumaiaiko Udalari Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren diagnostiko fasea burutu eta gero plana bera landu eta izapidetu dezan.*
- b) *BIGARRENA: Aurrekoaren kalterik gabe eta babes planak ukitu dezakeen Zestoako Udalaren zein bere herritarren eskubideen defentsa egokirako, Zumaiaiko Udalak beren bedegi jakinaraziko dio udal honi, prozeduran interesdun bezala, jendaurreko erakustaldia galdatzen duen onarpen izapide bakoitza, eta kasu horietan, erakustaldi epea Zestoar bizilagunekiko jakinarazpen berezi hori egiten den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da.*
- c) *HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Zumaiaiko Udalari ematea, adieraziz bere kontra egiteko bidezkoak diren helegite moduak eta epeak.*

4.- ERANTZUNA:

Zestoako Udaleko Osoko Bilkuran erabakitako zehaztapenak onartzen dira.

5. Getariako Udalbatzarraren akordioa Zumaiaiko Udalak Plan Berezia landu eta izapidetu dezan adostasuna azaltzeko irizpenari buruz.

Jaulkipen data 2013/11/26.

Getariako Udalbatzarrak 2013ko azaroaren 35ean egindako bileran erabaki haur hartu zuen:

- d) *LEHENA: Getariako Udalaren adostasuna ematea Zumaiaiko Udalari Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren diagnostiko fasea burutu eta gero plana bera landu eta izapidetu dezan, honako oharpenarekin: egunen batetan egin daitekeen Getaria-Zumaia oinezkoen ibilbidea, Santiago hondartza eta N-634 errepidearen artean, egin ahal izatea jasoko du beren bedegi planak.*
- e) *BIGARRENA: Aurrekoaren kalterik gabe eta babes planak ukitu dezakeen Getariako Udalaren zein bere herritarren eskubideen defentsa egokirako, Zumaiaiko Udalak beren bedegi jakinaraziko dio udal honi prozeduran interesdun bezala, jendaurreko erakustaldia galdatzen duen onarpen izapide bakoitza, eta kasu horietan, erakustaldi epea Getariar bizilagunekiko jakinarazpen berezi hori egiten den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da.*
- f) *HIRUGARRENA: Agerian gera dadin, deklaratu, behin eta plana onartzen denean, udal bakoitzak zuzenean berezkoak dituen eskudunak egikaturiko dituela planak ukitzen duen norberaren udal dermioaren barne.*
- g) *LAUGARRENA: Erabaki honen berri Zumaiaiko Udalari ematea, adieraziz bere kontra egiteko bidezkoak diren helegite moduak eta epeak.*

5.- ERANTZUNA:

Getariako Udaleko Osoko Bilkuran erabakitako zehaztapenak onartzen dira.

Akordioaren lehen puntuari jarraiki, 10. artikulua, *Erabilera xehatuko zonen erabilera eta hirigintza erregimena*, aldatuko da 'Babes Berezi Zorrotzeko eremuak' eta 'Azpiegiturak' zonetan erregimen berezia ezartzeko 1-01 Santixoko hondartza eta 1-02 Santixoko duna esku-hartze azpierzemuei dagokionez, Santixoko hondartza eta N-634 errepidearen artean oinezkoentzako pasabide bat ahalbidetze aldera.

Aukera hau berariaz aipatuko da bi esku-hartze azpierzemuen hirigintza fitxetan.

UKITUTAKO UDAL ADMINISTRAZIOEK, INTERESA DUEN JENDEAK ETA PARTIKULARREK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN LABURPENA

6. Zestoako Udala

Jaulkipen data 2013/06/10.

Plan Bereziaren hasierako onarpenaren ondoren zabalduetako jendaurrean jartzeko epearen barnean helegite moduan aurkeztua ez izan arren, Zumaiaiko Udalak, Plan Bereziaren erredakzio taldearekin bat, Zestoako proposamen hau iradokizun bezala aintzat hartzea erabaki du, Plan Bereziaren Hasierako Onarpen dokumentua amaitu eta gero jaso baita.

Zestoako Udaleko Hirigintza Batzordeak 2013ko maiatzaren 13an eginiko adierazpenei eta maiatzaren 21ean Zumaiaiko ordezkari eta teknikariek izandako bilerari jarraiki, Zestoako Udalak Plan Berezian jarduketa hauek sartzea proposatzen du:

- Beduara ibilgailuentzako sarbide bat egitea egungo egoera urriari irtenbidea emateko.
- Antzinako Zementu fabrika esku-hartzea prestatzea kokaleku hau balioan jartze aldera.
- Beduako saneamendu arazoari irtenbide egokia ematea. Egun ustategiek itsasadarrean isurzen dute zuzenean. Hondakin ur horiek saneamendu sare orokorraren edo irtenbide autonomoen (putzu septikoak) bitartez biltzea interesgarri izango litzateke.

6.- ERANTZUNA:

Plan Bereziaren Diagnosiak adierazten duen bezala, zehazki arkitektura, arkeologi, kultur eta historia ondarearen azterketari buruzko kapituluan, “Bedua arkitektura multzo gisa hartua izan beharko litzateke. Bedua Zestoaren fundatzea da, udalerrri horrek Urolarekin konektatzen duen puntu bakarraren gainean, portua eta ontziolatik sorturikoa. Eraikinak baino, eraikinen multzoa da garrantzi handia duena. (...) Aitzinako zementu fabrikak Beduako arkitektura multzoa osatzen du. Hondatuta dago eta ezin da segurtasunez baieztatu berreskura daitekeenik. Beduako lonja eta fabrikaren arteko espazioa (aparkaleku gisa erabiltzen dena) herritarrentzako espazio zabal modura berreskura eta erabili daitekeen eremutzat kontuan hartua izan beharko litzateke”

Plan Berezi honetan proposatzen diren jarduketak itsasadarraren ingurumen hobekuntza (habitata, egoera ekologikoa), auzo honen paisaia kalitatearen hobekuntza eta bere baliabide historiko zein kulturalen balioztatzea dute xede.

Bedua eta bere inguru naturala babesteko Plan Bereziak (1994), hasierako fase batean geldirik geratu zenak, honako proposamen hauek egiten zituen Beduako esparruari dagokionez:

- *Beduako Lonja-Etxea erabat zaharberritu historia eta arte alorrean balio berezia duen eraikin gisa.*
- *Antzinako zementu fabrika kontrolpean eraitsi.*
- *Antzinako ontziolaren pabiloi eta instalazio zaharkituak kontrolpean eraitsi eta, egoki izanez gero, helburu didaktikoa gidari, ontziolako jarduera berrezarri -horretarako, ontzi bat eraikiko litzateke teknika tradizionalak erabiliz-. Era berean, uretaratze-arrapala eta eraikinari atxikitako estalpea zaharberritu.*
- *Plaza txiki bat eraiki finkatutako eraikinen multzoan, egoteko gune eta espazio zentral funtzioak beteko dituen.*
- *Beduako sarbide sistema berregituratu horretarako zubiaren bidegurutzetik abiatuko den ebakidura txikiko errepide berri bat eraikiz.*
- *Errepidearen zein aparkalekuaren ertzetan zuhaitz ilarak landatu.*
- *Porlan fabrikari dagokion berrerabilitako eraikinaren inguruan baratzetarako guneak berrezarri.*
- *Garai bateko “Beduako uharteari” bere benetako irla izaera berreskurarazi horretarako lehengo kanal-kaia, autobidea eraiki zutenetik itxita dagoena, berriz ere irekiz.*
- *Jarduketak gauzatu aurretik, material didaktiko gisa erabili ahal izango den ondare historikoa berreskuratzea xede duen ikerketa arkeologikoa martxan jarri.*

Hasieran aurkeztutako proposamenak baliogarri eta interesgarritzat hartzen badira ere, gehienek Urolaren itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren berariazko helburuak gainditzen dituzte, bai handitasunari (ekonomikoa) eta baita helburuei (inguruaren hiritartzea) dagokienez. Hau dela eta, aipatutako proposamenetatik bi baino ez dira aintzat hartu:

- Garai bateko “Beduako uharteari” bere benetako irla izaera berreskurarazi horretarako lehengo kanal-kaia, autobidea eraiki zutenetik itxita dagoena, berriz ere irekiz. Jarduketa hau 4-09 azpieremuan xehatu da.
- Ontziola zaharberritu.

Zestoako Udalak Bedua auzoaren, bere historia eta arkitektura balioekin bat datorren eta gaur egungo ahalmen ekonomikoari egokitutako osotasunezko birgaitze eta antolamendua sustatzeko erakutsi duen interesetik, berariazko antolamendu Plan Berezi bat idazteko gainontzeko proposamenen definizioa ondorioztatzen da. Horretarako jarduketa berri bat (04.11.02. *Beduaren osotasunezko berreskuratze eta zaharberritze Plan Berezia idaztea*).

Plan Berezi horrek eguneratu eta bereganatuko ditu Natura 2000 Sarearen barne egotearekin bat datozen ekintzak, ‘Bedua eta bere inguru naturala babesteko Plan Berezia (1994)’ ezarritako helburuetatik abiatuta, honako alderdi hauek lehenetsiz:

- Beduako sarbide sistema berregituratu; horretarako J.M. Korta industriagunera doan zubiaren bidegurutzetik abiatuko den ebakidura txikiko errepide berri bat eraikiz, oinezko zein motordunentzat.
- Beduako saneamendu arazoari irtenbide egokia ematea. Hondakin ur horiek saneamendu sare orokorraren (J.M.Korta industriadetik doan kolektore orokorra) edo irtenbide autonomoen (putzu septikoak) bitartez bilduko lirateke.
- Antzinako zementu fabrika kontrolpean eraitsi, zaharberritzea erabaki ezean.

7. Miguel Urbietak Mancisidorek, Jose Manuel Urbietak Arrizabalagaren izenean.

Jaulkipen data 2014/01/07.

Ibaiaren eta bere lursailaren artean horma bat eraikitzea eskatzen du, urak lurra eramango duelako.

7.- ERANTZUNA:

Ibaiaren ertzan, ur-geruzaren eta alegazilogilearen lursailaren artean horma bat eraikitze proposamena ez dator bat Plan Bereziaren helburuekin. Hauek, A3. *Plan Bereziaren Helburuak eta Antolaketa Proposamenaren Oinarriak* dokumentuan azaltzen dira eta honakoak nabarmendu daitezke:

- Erregimen hidrologiko naturala mantendu eta bermatu.
- Ibilguko zenbait gune leheneratu, estuarioko erregimen hidrologiko naturala berreskuratzeko.
- Uraren kalitatea ziurtatu. Egoera ekologiko Ona edo Oso Ona lortu.
- Babestutako eremuan funtsezko elementuak diren habitaten azalera handitu (estuaria, duna-sistema, artadia).
- Ur-ertzekeko landaredia berreskuratu edota babestu.

Helburu hauek ez dira Plan Berezian nahierara sartu, baizik eta osotasunezko estrategia baten baitan daude, Europa mailako Zuzentarau ezberdinetan oinarriturik: Uraren Esparru Zuzentaraua, Habitategi buruzko Zuzentaraua, e.a. estatu mailako eta erkidegoko legediak eta plangintzak bereganatu dituenak.

Honela, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartu berri da (ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua) eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren lehen Moldaketa ere (azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua). Esparrua, gainera, 'ES2120004 Urolaren itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremua'ren barne dago. Zumaia Udalak sustatutako Plan Berezia bat dator, derrigorrez, indarrean dagoen lurralde antolaketa eta alorreko legediarekin.

8. Nikanor Lertxundi Ibarguren (Getariako Alkatea):

Jaulkipen data 2014/01/10.

Plan Berezia osatzen duten dokumentuek (planoek) Getaria eta Zumaia arteko mugak ez dituztela ondo jasotzen adierazten du.

8.- ERANTZUNA:

Plan Bereziko informazio eta antolamendu planoetan agertzen diren Zumaia eta Getariako udalerrien arteko mugak orientagarriak baino ez dira. Beraz, edozein jarduketa abian jartzeko orduan, momentuan indarrean dauden mugak aintzat hartuko dira, bi udalen arteko akordio bitartez zein eskumena duen foru erakundearen bidez.

9. Pedro Maria Izqueaga Murua, Arkamurka Natur Elkartearen izenean:

Jaulkipen data 2014/01/13.

Arkamurka Natur Elkartek zenbait gogoeta adierazten ditu honako alderdi hauei buruz: Urolako isuri hidrografikoan ematen diren jardueren, batez ere mahastien, eta itsasadarraren egoera ekologikoaren arteko erlazioa; basoak kontserbatzeko beharra, higadura eta luiziak ekiditeko; Plan Berezia eremutik kanpo geratu diren artadiak babestu eta Santxoko haranaren eta Oikia auzoaren artean korridore natural bat eratzearen garrantzia; etorkizunean Narruondoko itsasadarra Plan Berezia baten baitan sartzeko aukera.

Gogoeta hauen ondoren, natur taldeak eskatzen du:

- Mahastien tratamenduek erreka eta erreka-estuetan duten eragina ikertzea.
- Administrazio ezberdinak (Costas, URA, Gipuzkoako Foru Aldundiko sail desberdinak, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate saila, e.a.) koordinatu eta kudeaketa egokia egin ahal izateko akordio bat sinatzea, edozein jarduketaren aurrean denak informaturik izatea ahalbidetuko duena.
- Urolako baliabidearen egoera orokorra kontutan hartzea eta berreskurapen planak sustatzea aldundiko lurretan eta lur publikoetan.

- Arau Subsidiarioen berrikuspena egiterakoan, Narruondoko itsasadarra Plan Bereziaren sartzea, eta beste eremuak aztertzea.
- Oikia aldeko indargetze eremuak (San Bartolome basoa, Sorozar eta Zelaizar arteko magaletako artadiak, Xey parean dagoen artadia) Plan Bereziaren sartzea.

9.-ERANTZUNA:

Ulertzen dugu itsasadar baten kontserbazioa bermatzeko isuri osoan eragin beharko litzatekeela, ez bakarrik ur-ibilgu, ertza eta alboko eremuetan. Tamalez, Plan Bereziaren irismena gaitzen du honek eta hau dela eta, esparrutik kanpo dauden mahastiek zein beste jarduerak eragiten dituzten kalteak monitorizatzea bezalako neurriak hartzea ezinezkoa gertatzen da.

Era berean, aginpide eskudunen koordinazio egokia funtsezkoa dela onartzen da. Hala ere, Plan Berezia ez da akordio hauek sustatzeko baliabide.

Bestalde, A.1. *Memoria informatibo eta zurigarria* dokumentuko 2.2. *Jarduketa Esparrua* atalean azaltzen denez, Plan Bereziaren jarduketa esparrua bat dator 'ES2120004 Urola Itsasadarra' KBE zabaltzeko proposatu zen eremuarekin, gehi Santixoko hondartza osoa eta Zumaia Arau Subsidiarioetan 'Babes bereziko' gisa sailkatutako eremu bat. Mugaketa honek Urolako haranean dauden lurzoru publikoak, Narruondoko itsasadarra eta 'indargetze-eremu' deiturikoak kanpo uzten ditu.

Hauei dagokienez, Plan Bereziaren jarduketa esparruaren mugaketa zehazteko orduan intereseko eremu mugakideak indargetze-eremu periferiko batean sartzea eta horien gain jarduketa artezpideak baino ez ezartzea erabaki zen, honako argudio hauetan oinarrituz:

- Plan Bereziak merezi duen arreta gal ez dezan, jarduketa eta ahalegin guztiak babestutako eremu naturaleko funtsezko elementuak (estuaria, duna sistema, padurak) biltzen diren eta berez nahikoa handia den eremu batean (160 ha) egingo dira.
- A.4 *Ekintza Plana* dokumentuan egiaztatzen den moduan, jarduketa ugari proposatzen dira, batzuk eragin handikoak, eta horiek kudeatu eta ahalbideratzeko beharrezkoak izango dira laguntza ekonomikoak eta instituzionalak. Horregatik, ahalegina lehentasuna duten jarduketa zehatz gutxi batzuetan egitea hautatu da, eraginkorragoa izango delakoan.
- Indarrean dagoen udal-hirigintza plangintzak (Getaria, Zumaia eta Zestoako Hiri Antolaketarako Arauak) eta onartutako lurraldearen arloko planak (Hezeguneen LAP) gune horiek babesten dituzte eta erabileren arauak ezartzen dute inguruko guneetako ondasun ekologikoa babesteko eta gal ez dadin.
- Dena dela, 'indargetze-eremu' gisa proposaturiko inguruko gune horiek mugarriztatzea aukeratu da, hala indarrean dauden plangintza araudiak sendotzeko, bizilagunen informaziorako soilik bada ere, nola, beharrezkoa den esparruetan, jarduera araudi berriak ezartzeko.

10. Antonio Mateos Garcia.

Jaulkipen data 2014/01/21.

Antonio Mateos Garcia Jauna Plan Bereziaren aurka dago bere jabetzakoak eta Promotora Vascongada enpresarenak diren lursailei dagokienez eta "guztiz legez kanpoko eta bidegabea" dela deritzo.

Alegaziogileak, ondoren, argudio zerrenda luzea aurkezten du.

10.- ERANTZUNA:

- EAEko administrazio publiko eskudunak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak) paduren berreskurapen egitasmo ezberdinei ekiten ari zaizkie (Lea, Iñurritza, Oria, e.a.). Egitasmo hauek ekosistema hauen babesa, kontserbazioa eta hobekuntzarako hartutako konpromezuekin bat datoz, batez ere Natura 2000 Sarearen barnean ‘Kontserbazio Bereziko Eremu’tzat jotako guneeetan (92/43/CEE Europar Zuzentaraua, habitat naturalen eta fauna eta landaretza basatien babesari buruzkoa).
- Alegaziogilearen lursailetan Plan Bereziak egiten duen proposamena Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak ezarritako zehaztapenetan oinarritzen da, zehazki EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana (LAP) behin-betiko onartzen duen 160/2004 Dekretua aldatzen duen urriaren 30eko 231/2012 Dekretuan. Baliabide honetan alegaziogilearen lursailak ‘MA2.Korta’ eremuaren barnean agertzen dira:

A.U. 18 Korta industria-gunearen espazio libreetako gune berdearen iparraldean dauden lur beteleku hondatuak.

Erabilera eta jardueren erregulazio-matrizea Erabilera eta jardueren erregulazio-matrizea, «Leheneratu beharreko ingurune hondatuak (MA-2)» antolamendu-kategoriari dagokion «Guneak» atalean eranstean zaio «MA2-4. Korta gunea» gunea.

Alegaziogileak aipatzen duen epaiak ‘babes berezia (BB-3)’ kalifikazioa deuseztatzen du Korta gunerako, beste kategoria batean sailkatu izatea ahalbidetuz, beti ere, arrazoitu eta balioztatzen bada. Hau bera egiten du Hezeguneen LAP-ren aldaketak, gune hau ‘leheneratu beharreko ingurune hondatuak’ kategorian sartzen baitu.

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, bestalde, hirigintza planak lurralde antolamendurako baliabideek zehaztutakoari men egin behar diotela ezartzen du. Plan Bereziak agindu hau betetzen du MA2-4. Korta gunea kontutan hartuz, Garbiguneari dagokion doitzea eta gero.

- Plan Berezia Euskadi 2020ko Garapen Jasangarrirako Estrategia (‘EcoEuskadi 2020’), EAEko Ingurumen Esparru Programa (IEP) 2011-2014 eta Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin bat dator.

IEP-ren 2. helburu estrategikoak, *Dibertsitate biologikoaren galera geraraztea; ekosistemak zaharberritzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea*, ezartzen dituen lehentasunezko jarduketa arloak Plan Berezian gauzatzen dira: natur-guneen babesa eta kudeaketa (3. helburu operatiboa: *Natura 2000 Sarean dauden habitat eta espezieen kudeaketa maila altua lortzea*), espezieen babesa eta kudeaketa (4. helburu operatiboa: *Galzorian zein egoera kritikoan dauden espezieen populazioen joera hobetzea*), habitaten kudeaketa eta berreskurapena eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea (5. helburu operatiboa: *Habitat naturalek, erdinaturalek zein naturalizatuak okupatzen duten lurraldearen hedadura handitzea eta haien kontserbazio egoera hobetzea*).

Andeatutako ekosistema natural baten berreskurapena ez zaio garapen ekonomiko eta sozialari kontrajartzen, natur baliabide baten balioztatzea baitakar.

- Garbigunea MA-2 gunearen doitzetik kanpo uzteari dagokionez, Plan Berezia lantzeko orduan bi aukera aintzat hartu dira: Hezeguneen LAP-k marraztutako MA-2 gunearen mugak zorrotz mantentzea eta Garbigunea barne hartzea, edo, mugak doitzea interes publikoko eraikin bat, Garbigunea, aurretik badagoela kontutan hartuz. Bigarren hau aukeratu da ulertzen baita Plan Bereziaren helburuekin bat datorrela eta MA-2 gunean kokaleku periferikoa duenez ez baitu paduraren berreskurapena (Hezeguneen LAP-n eta Plan Bereziaren helburua) oztopatzen.
- Ramsar Konbentzioak, 2008an onartutako bi ebazpenen bitartez, ‘hezeguneak eta giza-osasuna’ eta ‘hezeguneak eta pobreziaren murrizketa’, hezegune osasuntsuen eta gizaki osasuntsuen artean dagoen lotura ulertarazten du: ‘Egun mundu osoan hezeguneen sektorearen eta osasunaren sektorearen artean lankidetzari bide emateko beharra dago, biek uler dezaten hezeguneak osasuntsu egotea beharrezkoa dela eta biek hezeguneen zentzuzko erabileraren eta andeatutakoen berreskurapenaren alde egin dezaten, gizakiak osasuntsu egotea lortze aldera’. Edonola ere, andeatutako hezeguneak dira gizakientzako osasun arazoak ekar ditzaketenak. Hezeguneek eskaintzen dituzten ekosistemen zerbitzu ugarietako bat ura arazteko gaitasuna da, poluitzaileak sedimentu, lurzoru eta landaredian ‘harrapatuta’ geratzen baitira.
- Plan Bereziaren garapen-proiektuen baitan aurreikusitako lurren mugimenduen diseinuak lurren balantzean orekaren alde egiten beharrezko dela kontutan izango du, mugimenduek eragindako inpaktuak txikiagotu eta proposamena bideragarri egin ahal izateko.
- Ibarrek eta padurak nekazal gune bezala erabiliak izan dira betidanik, beren emankortasun altua dela eta, horretarako drainatze sistemak eraldatuz. Plan Bereziaren helburua da Gorostiagako meandroan hiritartuak ez dauden lurak jatorrizko padura egoerara itzultzea.
- Mugaketei dagokionez, *A.1. Memoria informatibo eta zurigarria* dokumentuko *2.2. Jarduketa Esparrua* atalean azaltzen denez, Plan Bereziaren jarduketa esparrua bat dator ‘ES2120004 Urola Itsasadarra’ KBE zabaltzeko proposatu zen eremuarekin, gehi Santixoko hondartza osoa eta Zumaiaiko Arau Subsidiarioetan ‘Babes bereziko’ gisa sailkaturiko eremu bat.
- Alegaziogileak aipatzen duen jabetza akatsari buruz, Plan Berezian islatutako datuak Udalak igorritakoak izan dira, eskumen hoberik ziurtatu ez denez. Desjabetze espedienteen ondasun eta eskubideen zerrenda gauzatzean aipatutakoak zehaztasunez definituko dira, ulertzen dugularik antolakuntza xedeetarako ondasunen zerrenda, Planaren zati izan arren, funtsezkoa ez dela.
- Bidearen jabetza publikoa edo pribatuari dagokionez, Plan Berezia antolamendu baliabidea da, eztabaida horiek alde batera utzirik. Antolamenduan bide publiko bat aurreikusten bada, desjabetu beharko da lursail pribatuan kokatua badago, eta dagoeneko publikoa izanez gero, ez da hura lortzeko kudeaketarik egin beharko.
- Paduraren berreskurapenak eta Urolako itsasadarreko paduren azalera handitzeak ekosistema honen biodibertsitatearen areagotzea ekarriko du eta beraz hegaztien aniztasunaren gorakada eragingo da, egun ere, alegaziogileak aipatzen duena baino askoz ere anitzagoa dena, Plan Bereziaren diagnostikoan azaltzen den bezala. Alegaziogileak, eta orokorrean biztanleen zati batek,

honi buruz duten ezjakintasunak, bestalde, dibulgazio eta ingurumen heziketa ekintzak egitea beharrezkoa dela azpimarratzen du, bizilagunek natur-gune honetan dauden balio naturalei gerturatu eta gozatu ahal izan dezaten.